

AUGUSTIN      ZUBIKARAI

Bizi garratza  
Mendu zaharrak

DONOSTIA  
1970

*«Egilleak ez ditu antzerki hauek Arantzazuko idatz-normetan egin, baina baimena eman du era horretan argitaratzeko.»*

*irakur Sail*

*D. :. 5. S. 391170*

Liburu honen egille ta jabea:  
Augustin Zubikarai Bedialauneta  
Cruceño 38 — Ondarroa

Banatzailea:  
Iñaki Beobide  
Ferrerías 1 acc. 3  
Donostia

1 ZARRA IRARKOLA-PEÑA Y GOÑI, 13-DONOSTIA

## ARKIBIDEA

SARRERA .....	9
BIZI GARRATZA .....	17
MENDU ZAHARRAK .....	73



## Sarrera

*Gerla osteko idazle euskaldunen eginkizuna ezin eta neketsuago izan da. Alde batetik, 36 urtea aurreko kultura-giro berezia gerla galtzeaz batera autsi eta desegin zen. Gure urte haietako kultura bizitzaren organizazio sortu-berria birrinduta geratu zen. Harekin batera, bertan parte hartzen zuten eta sustentarri ziren gizon eta ideiak, sakabanatuak eta hilunpetuak, ordurarertainoko prozesuaren haria galdu zuten.*

*Mugimentu hura hastapen bat besterik etzen; nazio-kontzientziaren sortzeak martxan jarri zuen hizkuntza eta kultura pizkundearen adierazpen franko erromantikoa. Gauzak bide normalagotik joan izan baziran (guretzat hobeetatik) eta bizitza politikoaren organizatzea beste era batera gertatu izan bazan, gure gizartearen barruan sortuko ziran produzio har-eman eta tensioen arabera, bai ideologiazko eta bai esistentziaren beste era askotako esprezio-bide bereziagoak (aberratsagoak alegia) sortuko ziran seguru asko.*

*Bainan historia (gertakarien historia behintzat) alda eziña da. Horrela izanik, aipatutako kultura bizitza harek aurrerabiderik etzuen arkitu. Urte askoz zehar, gure bizikera propioa indarberritu den arte, eziñaren eta sakabanazioaren zulo hilunetik ibilli da. Nola halako liberalizazio baten beharra izan dugu, herri baten proble-*

matika berriz planteatzeaz batera promozio gazteagoen eskutik gure kultura bizitza gauden egunetako ideia eta sentipenetara jartzeko; hobeto esan, jarri nahi izateko. Burruka latza da.

Bitartekoak, transizioko adierazpenak izan ditugu, eta adierazpen hoiek, nun-nahi gertatu ohi dan bezela, bakartiak, txit apalak, eta, ezin bestean, historiaren haritik atereak izan dira. Gaiaren aldetik begiratuta, berdin estiloaren aldetik, tinkotasunik gabeak (hala ere. lan aipagarri bakan batzuek baditugu urte hoietaoak, kalitate onekoak).

Kultura euskaldunak publiko bat bereganatzeko eskubiderik etzuen, ez ta ere gure gertakizunak aztertzerik. Hau honela izanik, ezin zitekean egilearen eta irakurleen arteko har-eman probetxugarriarik sortu; beraz, kritika bat, esate baterako, eziñezkoa zan. Eginkizun suizida zelako, alde batetik, eta bestetik zearo alferrikakoa. Horrela, bakoitzak ahal zuena egiten zuen, edo nahi zuena (hau ere bai, batzuetan). Gutxiagotasun konplejoak, eziñak, oroipen minduak, nostal'íiak, etabar, kondizionatu zuten gizon haien ekintza.

«Ahal deguna egiten degu...»

«Haiek beste denbora batzuek ziran...»

«Konforme ez bazaudete, egin zazue zuek hobeto...» eta honelakoak maiz entzuntako hitzak izan dira gure artean aipaturikako urte haietan. Eta gure gizartearen egoera efektiboa era hitz haien parekoa izan ohi da maiz.

Gerla aurreko kultura eta gaur sortzen ari denaren bitarteko zubia falta izan zaigu, beraz, eta horregatik, behar bada, hainbeste burruka, desegokitasun, eta alkar ezin ikusia. GAZTE-ZAHAR binomio topiku eta alu hori maiz erabilia izan da, eta denok, bakoitzak gure alde-

*tik, onhartu izan degu zer esan nahi zuen edo legezkoa ote zan bi aldiz pentsatu gabe.*

*Horregatik, hori dela ta, informazio ttipiño baten argia ondo etorriko litzaiguke denori garai haietako egile eta lan adierazkorren benetako giroa eta esan-nahiaz jabetzeko. Konparatu eta juzka ahal izateko benetako base objetiboa izango genduke horrela, eta gure gaurko aurrerakoa («despegea», ekonomilarien hizkuntza erabiliaz) lasaiagoa izango litzake, hainbeste tensio gabea, agian.*

*Izan ere, gure aurrekoek presio atzerakoi bat egin dute gu gazteengan; hau, literaturan behintzat, egia da. Bainan, bai ta ere, berak galtzaileak izan ziran, eta kondizio horren ondorio gogorrek sufritu dituzte: antzutasuna eta debekua, batipat. Guk giro txarra dugu alboan, bainan errebeldiaren suak franko laguntzen gaitu (egoskorak izateko umorea behintzat ez dugu oraindik zezero galdu). Haieri berriz etzitzaien hori ere geratu. IRAUN: hura izan zen lema bakarra.*

*Gauza hauek gaur eskuetan duzuten liburuaren hari-  
ra datoz. Izan ere, Agustin Zubikarai aipaturikako gerla osteko giroan bere teatro lana osatu duen idazlea da. Eztut honekin garai hartara bakarrik lotu nahi. Gaur ere idazten du, eta nere ustez iñoiz baiño hobeto; bainan, hala ta guztiz, bere pentsakeraz, izakeraz, edadez, eta idazkietako giro berezi horrek adierazten digunez, garai hartako egile klasikoa da, eta, behar bada, teatro sailllean langilleena ta onena.*

*Teatroa, antzerkia, oso genero herrikoia izan da azken urte hauetan Euskal-Herrian; baiñan bai ta ere eza-gutzera ematen zaillenetakoa. Lan hortan noizpait ibilii garenok badakigu zenbat zailtasun dituen teatro obra bat muntatzeak eta herriz-herri emateak; jendea bildu, enseioak, jazkera, argi, dekorazio prestatzeak; zensura-*

ko baimenak, gobernazioko baimenak; teatro saloiak al-kilatzea, ordaintzea, propaganda, atzera ta aurrera ib'il-tzea... Eta gehiago. Horregatik, bere materialtasun al-detik dituen eragozpen guziengatik, herrikoia izan zite-kean genero hau gaur egunean ia ezereztua dago. Bes-te alde batetik, eta zailtasun hauek kontuan harturik, teatro taldeek nahiago izan ohi dute edo zearo obra farragarri kaskailluak jartzea (egun bateko jendearen festa farrea eta gozamen erreza); edo, bestela, denbo-ra alperrik ez galtzeko, zearo obra aurrerakoiak auke-ratu, itzuli eta jartzea (kezkadun aurrerakoi guzien jo-kabidea).

Bainan Zubikarai jaunaren teatroa ez da bi sail hoi-etan sar litekeana. Bere teatroa, ia beti, kezkadun eta prolemadun teatroa da, drama edo komedia eran osa-tua eta erabilia, klasikoki soluzionatua bai ideietan eta bai eszenarako eraketan. Teatro burjes klasikoa beraz. Teatro klase horrek kulturadun nazio guzietako teatroan bere tokia izan du, eta historiaren etapa bat bete ohi du, luzeagoa edo motzagoa (batzuetan aski luzea, ala-fedea; eta orain ez dut gure herrikoagatik esaten).

Horrela, teatro hori ez da ezagutua izan. Seguru as-ko (enago oso ziur, baina hala uste dut) Ondarroako talderen batek noizik behin bere lanen bat hor edo hemen jarria izanen du; bainan jendeak, publiko zaba-lak, Zubikarairen teatroa ez du ezagutzen, ikusi ez due-lako. Teatro-landan gertatua bestetan ere gertatu da, jakiña. Baiñan liburu bat, esate baterako, behin inprimituz geroz hor gelditzen da noizpait, nahi bada, iraku-rria izateko. Ez, ordea, teatroa. Agertu gabeko teatroa, errepresentatu gabekoa, teatro hila da. Momentu histo-riku berezi batean egina izan den teatroak gaurkota-suna azkar galtzen du, faktore asko dirala medio.

Garai batean, teatrorako bokazioa eta medioak fal-tatu zaizkigulako (benetakoak, alegia), teatro talde pi-

lotu baten tankerako zerbait izan ez dugulako, etabar, herrikoi kulturarentzat interesgarria izan zitekean sail batean huts egin dugu.

Zubikarairen izena, irabazi dituen hainbeste sari eta premiotatik ezagutzen dugu, baina bere lana ez dugu ikusi ahal izan. Bere saritutako lan hoiak axolake-riaren lañorik beltzenak estali ditu.

Horregatik, ba, interesgarria izan da gaurko liburu hontan bere bi azkenetako obra argitaratzeko ideia. Honela gutxienez jendeak ezagutu ahal ditzan eta be-roiak juzkatzerakoan esamesena baino referentzia ho-bea eduki dezan.

Ni ez naiz nor hitzurre batetik iñori kritika bat egi-teko, eta gaiñera ez da hori nere intentzioa. Nola nahi ere, amaitu baiño lehen iritzi pertsonal bat eman nahi nuke bi obra haueri eta Zubikarairen eitekerari buruz.

Zubikaraiak ba du halako erreztasun berezi bat bere obren pertsonaiak eszenan ezartzeko, definitzeko eta mugitzeko. Era klasikoan planteatzen du bakoitzaren zer-esana eta zer-ikusia, baina errez erabiltzen du gaia eta pultsu sendoarekin eramaten ditu aurrera, berak ezarri nahi dien papera ondo beteaz. Dialogoak, elkar-hizketak, guztiz trebeak eta pizkorrak dira; abildade haundiarekin mintza arazten ditu bere pertsonaiak, era herrikoiean gaiñera, herrikoikerietan erori gabe; naiz eta batzuetan, noizik behin, dialogoaren bizkortasun eta bizitasun horrek berak hizkuntzaren aldetikako «barro-kotasun» pittin bat enbazogarria sortzen badu ere.

Bi obra hoiak orain berrirokoak dira, eta biak sari-tuak izan dira, bata «Agora» sariarekin eta bestea «To-ribo Alzaga» sariarekin.

Lehenengoa, BIZI GARRATZA, bestea baino hobe-a iruditu zait; teatro egitura aldetik eta gaurko gizon-a-ren prolematikaren planteatze aldetik oso interesga-

ria. Bertan, gertakizunak eta ambienteak, anekdotak alegía, inportantzia galtzen du, eta pertsonajeek beren errealtate egunerokoa superatuaz, gaindituaz, abstrakzioaren kondizioraiño heltzen dira. Eztute, ordea, prolema konkretoa bazterreratzen, gaurko gizonak darduzkan zenbait prolema sakonki erabiltzen dituztelako. Pertsonaje hoiek. Zubikaraik gaurko gizonen munduan ikusten dituen indar elkar-kontrako eta kondizionagarriak errepresentatzen dituzte. Horrela, heriotza, gosea, gaztetasuna, zahartzarua, maitasuna, gorrotoa, ausardia, koldarkeria, dirua... etabar.

Pertsonaje hauek elkarrekin filosofatzen dute eta gizonen koldarkeria ta ahultasuna agirian jarri. Gerla baten itazala ere hor dago entramaje guzia hiluntzen duelarik (pasatako gerla bat, gerla izugarria; aita semearengandik eta gurasoak elkarrengandik urratzen eta sakabantzen dituana; iruzurra, dirukeria eta gizonen gaiztakeria alabehar trajiko batez agirian jartzen dituana...).

Obra hortan dialogoa sakontasun haundi batera heltzen da. Beraren filosofia edo bizitz-filosofia oso pesimista da, eta obrak edertasun haundia du zenbait momentutan.

Oso interesgarria iruditu zait (sorpresa haundia hartu nuen irakurtzean) eta teatro euskaldunean egin izan den gauzarik onenetakoa.

Bestea etzait horrenbeste gustatu. Badakit gustagarriagoa izateko zenbait osagarri badituela, baina horretxegatik etzait gustatu hain zuzen; ariñegi eta alaiegi egiña dagoelako eta bere arinkerian partidista delako, gaiñera. Eztut esan nahi intentzio alai eta jostagarriarekin egiña dagoenik, sakontasun falta nabari dela baizik.

Gaia, alde batetik, oso biurria eta zailla da. Hori

horrela izanik, prolematika horrek tratamendu sakonagoa behar luke. Egileak ez du historiaren une hontako burruka hori behar haina aztertu, eta bere analiza ezin diteke adierazgarria izan. Gainera, esan dudan bezela, partidista da, egileak parte hartzen du, eta batzuen alde agertzeko erabaki hori «a priori» hartua dago. Orre-la ba, egilearen ikuspen horrek hoztasuna eta objetibotasuna falta ditu. Bertan agertzen zaigun prolema hori oso gaurkoa da, gaurkoegia, eta oso zailla da, edozeinentzat, behar hainako perspektiba edukitzea.

Anekdotak aldetik gauza politak baditu, dirudien baino adierazgarriagoak; baiñan, batez beste, bide erdiraiño bakarra heldu da Zubikarai obra hontan. Gehiegi presatu da, behar bada, eta presa askorekin dabillenak maiz egin lezake huts.

Nola nahi ere, ausarta izan da gaia aukeratzean, eta hori tanto bat da bere alde.

Eztut gehiago jarraitu nahi. Hemendik aurrera irakurleak ikusi eta aztertu behar du. Baiñan, amaitu baiño lehen, azken aipamen bat. Zubikarai, bere alde on eta txarrekin, osotasun eta hutsegiteekin, teatroa serioki hartu duen gizona izan da. Hortik dator bere ekintzearen baliotasuna eta horregatik da bere lana estimagarria. Publikorik gabe eta girorik gabe hainbeste urteetan lana hain serio eta segian egin duen gizonak, gure estimazio osoa eta esker ona merezi du.

Gutxi dira, Euskal-Herrian, berak eskeiñi duen ha'ma eskeiñi duenik.

Gaurko liburu hau ondo merezia zuen, beraz, eta bere izena eta lana ezagutuak izan ditezela opa diot. Bihotzez.

XABIERLETE

URNIETA —1970— Otsaillaren 15-ean.



# Bizi garratza

*Irudi egileak*  
(Agertu ala]

LORE. —Andre gaztea.

HERIO. —Heriotzaren agerlari. Emakume itsusia.

GOSE. —Gosearen agerlari. Gizonezko txatxar txatxarra.

UNAI. —Gizon gordiña.

AMA. —Emakume egina.

DIRU. —Ibon. Bizi oneko gizona.

ATSO. —Zahartxo. Iharra.baina bizia.

BITS. —Diru'ren otseina. Gazte mardula.

*Giroa:* Gure egunetan.

[Bizitasuna, indarra, gordintasuna bilatu bedi egilentzat)

## LEHEMENGO EKITALDIA

*(Mendi artean. Bidea)*

LORE. — *(Egunetako umetxo bat esku artean daukala, erdi zoro, bildurrez eta gizartetik iheska ie-*

*gez dabil, ezkutua bilatu nahirik. Bere ume-  
txoa nunbaiten laga nahi, iñok ikusi barik,  
bidean norbaitek hartzeko eran.*

*Maitasunez tartetan, minez ta kezkaz beste-  
tan, mintsu, negarti, hitz egíngo dau, hitzei  
indarra eta mina sartu nahirik.)*

Ene kutun!

Isil! Isil...! Ez egizu negarrik, eder hori. Ez nagizu sal. Zeure onez. Zeure onez...

Hementxe nunbaiten, bide ertz honetantxe, bigun bigun lagako zaitut. Minik ez hartzeko eran.

Nirekin ba zabilta, ez zinake biziko luzaroan, (*irri mintzuz*) nire bekatuak, nire bekatuak herri guztia lotsatuko leukeelako, herri zuri au baltzituko leukeelako.

Zu ekarri zaitudala balekie, mundura umetxo bat bota dodala ba lekie, lizun legez, hordi hordi legez, emakume galdu legez, atea itxi eta biotzak gortuko lirake niretzako.

Ilgo ziñakela eta ez zaitut hil nahi.

Neu berbera zara, kutun hori.

Ezagutuko zaitut. Beti. Biziko zara. Zure ondoren ibiliko naz. Goseti, eskale... baña zure ondoren, itsu.

Eta egunen baten jakingo dozu nor dan zure ama. Eta ukatu eta ezkutatu nahi izango ba jatzu be, egunen baten esango deusut nor dan zure sortzailea, sortzaile galdua.

Ixo... Ixo...!

Jakizu, bihotza, zure amak ezebala bekatu-  
egin.

Jakizu, laztan, behin jausi ninízala eía indarrean. Indarrean.

Iñok ez deutsu sekula esango, neureíxu, zure ama lizuna izan danik; ñok ez deutsu sekula esango zure ama salduten zanik.

Ze, zeu berberoi, nire erraietako frutu legez testigu izan da be, ñok ez deutsu arraren akatsik botako eta ez zare sekula lotsatuko amaz, biok elkarregaz libre bizi aha! gaitzanean.

Ez negarrik. Neu nago, ni, negarrari eutsi ezinik.

Esku onetan jausteko eran lagako zaitut. Gose nago. Gose...!

Honela ezin bizi, ez zu eta ez ni.

Eta nik erraietan igarri eta sentitu zinduzan... zuri bizia emotea pentsatu neban, aitak ukatuta be.

Eta ezkutuan erabili zaitut, iñoren indarrera makurtutako amak, gurea ba gendu legez lotsa eta bekatu!

*(Musu batzuk emon da behean ipiniaz)* Laztan laztana! Ez zaitut ahaztuko. Beti beti, nirea izango zara.

*(Ezkutatera doa... ihes egitera, umea lagata, baina zalantzan igarriko da. Negarretan).*

*(Indartuaz)* Ene! Ezin dot! Ezin! Ez zaitut lagako! Gose eta tatarrez be zugaz, biok elkarregaz ibiliko gara.

Beste egun bat gehiago. Nirea zara. Nirea! Eta nire esnea, sikatu arte, zurea da. Bai, bai...! Ez zaitut lagako, ez! Goazen, goazen

barriro ezkutura, ahal dan tokira... biok elkarrekin, hil da be! Baña biok elkarrekin!

*(Joaten da)*

II

HERIO eta GOSE

*(Alderdi banatatik agertzen dira. Lehendik elkarregaz ibiiaiek iegez agertuko dira, elkarri zirika eta burlaz. HERIO, heriotzaren ezaugarri da eta GOSE, gosearena. Tankera horretan agertu behar dira.)*

HERIO. —Horigaitik pozik? Ama gaixoak dira zure janari?

GOSE. — Eta zureak?

HERIO. — Harro zabiltz.

GOSE. — Ba!

HERIO. — Gangarregi. Zoroegi.

GOSE. — Oker zagoz.

HERIO.—Besteak ez lako alen bat agertu gurarik.

GOSE. — Ez al daukat?

HERIO. — Nondik?

GOSE. — Nondik ez?

HERIO. — Amesti!

GOSE. —Ezagutzen ez nire indarririk?

HERIO. — Gaitz ahal da? Odolera begiratu. Odolik ba ahal daukazu?

GOSE. — *(Irriz)* Odolik ba ahal daukazu?

Noiz itoko ibili zan arrantzale gordin batek

be horixe esan eutsan berari begira zirkin  
egin barik aurrean eukan mendiari: Odolik  
ba ahal daukazu?

HERIO. — Eta?

GOSE. —Nok nori, zozoak beleari ipur baltz.

HERIO.—Isildu behar zinake.

GOSE. — Ni? Eta zu ez?

HERIO. — Sator itsusi!

GOSE. — Mututu zu, alu zikin.

HERIO.—Txarrien pekorotz.

GOSE. —Sagu zahar, babatsu, lohi.

HERIO. — Ni bai?

HERIO. — Gitxiago lizundu.

GOSE. —Noiz ikusi nazu ni lurpean?

HERIO.—Zer zara besterik lur eta lupetz baino?

GOSE. — Nor ez?

HERIO. —Dana lupetz, basa, hauts.

GOSE. — (*Irritsu*) Nire adiskide maitagarria lore ahal  
da?

HERIO. — (*Harro*) Heriotze naiz!

GOSE. — Eta ni, Gose!

HERIO. — Hasieraren hasieratik nire langile zara.

GOSE. —Zu nire otsein mirabe.

HERIO. — Harro!

GOSE. —Hori ez dakit. Baina bai argala izan arren,  
indartsu.

HERIO.—Ezkelaren begiko indar.

GOSE. —Zuk nahi ez bezain altsu.

HERIO. — Ametsezko.

GOSE. — Ahalezko.

HERIO.—Zoroaren haizezko.

GOSE. —Egiaren izatezko. Ukatu?

HERIO.—Zoro eta ustel, zoro ustel!

GOSE. — Harro eta putz, harro-putz.

HERIO.—Isil baina, potozorri.

GOSE. —Nik isilean lan egiten dakit. Isil zaituz, pizti zatar, arraren amorde!

HERIO. — Bizi bako bizi!

GOSE. •—Kanpaien min!

### III

#### HERIO, GOSE, ta ATSO

ATSO. — *(Emakume iharra. Bidean bera dator. Tata-  
rrez dabil, lotu. Baina mihiz zolia da eta bi-  
zitasuna dauka esakeretan. Herio eta Go-  
se'ri begira, irribarretsu:)*

Betiko antzera? Haserre?

*(Herio eta Gose'k destain agiriak egingo ditue.)*

Munduz mundu atzaparrekin be ezin aukera-  
tu zuek lako beste bi. Beti bata beste jo-  
ten. Beti elkarri txopinka. Iltze eta mailua  
legez. Erlojuaren txaratila, dindila legez,  
tik-tak, tik-tak... Ez da ala? Oi! Erantzunik  
ez?

HERIO.—Zoaz... zoaz lehenbailehen zure bidean.

ATSO. — Hara! Orain arte geldi ibili naz eta orain  
bizkor?

*(Gose'ri) Alproja! Lau gauzatxu esateko  
daukadaz zuri! Isilik zu be? Ba, ba, ba! Oki-*

lak jan deutsu daukazun okela pizketa, mingaina?

Zure gorantziak jaso nebazan.

GOSE. — Nireak?

ATSO. — Ezet?

Medikuaren etxera joan nintzan. Ezenkien? Ni lako zaharroi medikuak ez deuskue asko begirutzen. Atetik sartzen ikusi orduko, betiko arrera; gogortasuna neurtzen? Tensioa hartzen?

Ez ahal da beste gaixorik?

Gazte giñanean erantzi eragiten euskuen. Gu be ba giñan zerbait orduan, ez? Eta eurak be bai.

Oraingo medikuak, zaharrontzako, ikusi ezin gaituen sasi osagileak lakoxe dira. Zimurtu eta kizkurtu garianean, begitik begiratu eta kitu. Len begiekin, azaletik sakonera... Orain begitik... ez dakit nora. Eta betiko iragarpena, jakina: orbel jaustea, sasoiaren azkena...

HERIO.—Zoaz... zoaz lehenbailehen, txotxin. Horren gorantziak eta nireak bardinak ez dirala jakiteko zagoz?

ATSO. — Gorantziak? Zure musuak be eleuskit orain arradarik

HERIO.—Ez gehiegi harrotu.

ATSO. — Ba! Nai dozunean dantzan egin geinke, dantzan nahi dozunean.

Eta gorantziak esan deutsut. Bai, bai... Medikuak begiratu eustan... begiratu baka-  
rrik... eta, kontuz jatekoagaz... kontu eda-

riagaz... Ba, esan neutsan, Gose'ren gorantziak?

GOSE. —Gorantzi hutsekin pozik egon.

ATSO. —Goseakin ohitua nago, premiña barik bizi izan ba nintzan be. Ez zenkien? Ni be izan nintzan aberats. Eta dakidala, ez neutsan iñori kalterik egin. Eta goizetik gabera, esku hutsik laga ninduen. Bekatu bat egin ei neban: nire konzientziari jarraituz, goian egozanean antzera pentsatu ez... Eta horra...

GOSE. —Zoaz, zoaz ziztrin...

ATSO. —Hainbeste arazo daukazue?

GOSE, —Etxeko gora beherak.

ATSO. —Zereko...

GOSE. —Etxekoak, bai. Ez dago iñor senitarte bako-rik?

HERIO — (*Gose'ri*) Ni iñor barik jaio nintzan.

ATSO. —Aita barik esnetu eta ama barik odoldu ahal zian?

HERIO. — (*Burlaz*) Gosearen gosetik ernetu.

GOSE. —Goseak ba ahal dauka erne miñik?

HERIO. —Nongo miña?

GOSE. —Miñik gabeko gaixoa, haizerik gabeko soroa, berorik gabeko sua...

HERIO.—Zetan gara? Zara eta ez?

GOSE. —Naiz eta ez nai, eta naiz.

ATSO. —Guk ez daukagu holako filosofiarik. Gure filosofia gurarietan dago, asmoetan baino ziu-rrago.

HERIO. — Ni, barriz, naiz eta nai dodanian naiz.

GOSE. — Eta zarenean ez zara.

HERIO. — Beti naiz.

- GOSE. —Heriotze ba zara, ez zara Bizi. Eta bizi ba zara, ez zara Heriotze.
- HERIO.—Ez dago herririk nire ohorez edo nire bildurrez niretzako monumenturik jaso ez dabenik. Ba naiz ala ez?
- ATSO. — Hautsen oiak noiz dira monumentu? Ja, ja, ja...! (*Barre gangartsuak*).
- GOSE. — Atsoak ba daki, ba daki...
- HERIO. — Hautsen oiak...! Heriotzaren musika isila da hautsen oia... Lorik egiten lagaten ez daben eten gabeko durundia. Non daukazu zuk hainbeste ezaugarri?
- GOSE. — Nik? Lana zer dan ba dakizu?
- HERIO. — Noiztik lana zure monumentu?
- GOSE. — Edo nire kantu.
- ATSO. — Lana kantu edo monumentu? Lana premiña da?
- GOSE. •—Zegaitik lan egiten da?
- HERIO. — Irabazteko.
- GOSE. — Irabazi, zetarako?
- HERIO. — Biziteko.
- GOSE. —Eta bizi, norekin? Gosearekin?  
Erregeak gosearen bildur dira eta eskaleak bere mendeko.
- ATSO. —Ezagutzen dot nik ez dana be.
- GOSE. — Zein?
- ATSO. — Diru.
- GOSE. —Andratxo, «Diru» ez da gure txorimalu bat baino.
- ATSO. —Txorimalu? Zuen jostailu? Zuen tamboliña esan nahiko zenuen. Harek zer jo, zuek eta guk ala dantzan egin.

HERIO. — Ametsak!

GOSE. —Esakerak! Gosearen entzunik ez daukazu? Ez zaitu iñoiz Goseak saldu?

ATSO. — Ni? Ni saldu?

GOSE. —Zu eta edozein. Emakumerik garbienak Goseak saldu eraziten ditu, gizonik otzenak irakindu. Goseak biztutzen ditu gerrak eta goseak bakeak eratu.

ATSO. —Izkillupeko bakeak... bakeak?

HERIO.—Ez jarraitu. Eta ni etorten naiz, Heriotze, eta danok eteten zaituet. Errege eta eskale, emakume eta gizon, gerra berotzaile eta bake ameslari.

ATSO. —Gogor diarduzue. Zorriak zirikatu zaitue? Ba dakizue hemen egokiena zer dan? Zuei bioi bitsa emon eta alde egin. Ez ahal da ala? (*Burlazka joaten da*).

#### IV

#### HERIO eta GOSE

HERIO.—Zorria... bera eta txatxarra. Zimurra beste-rik ez dauka, gosearen bizar horrek.

GOSE. —Eta zuk eta nik ez daukaguna: zentzuna.

HERIO. •—Neguko orbelen zentzuna.

GOSE. —Min emon deutsu?

HERIO. — Odolik atara deutsi.

GOSE. —Gau haizeak sorgin dabiltz.

HERIO. —Zegaitik?

GOSE. —Ez dozu sentiduten? Inor igarten ez?

HERIO. — Zoro bat.

GOSE. —Zirikatuko dogu zure ala nire bildur dan gehiago jakiteko?

*(Hegal banatan, itzal antzera, ezkutaten clira, urten barik).*

V

HERIO, GOSE eta UNAI

UNAI. — *(Gizon gordina, larri dator, kateak eskuetik dindilizka, narras, zoro antzera dei deika.)*

Libre! Libre! Libreee!!! *(Oyartzuna, ekoa birlatu nai daben itxuran)* E! E! E...? Libre!!

Eta ez. Hormak eta kateak ez dabe estutzen gizonik. Horma artean nengoan bitartean, trankil nengoan, nire ilunpea han sartu nindutenen lotsagarri zalako. Nasai. Handik ihes egin dot eta haizeak be estutu egiten nau. itzalak be kiriotu, zurbildu... neuretik atara. Horma artetik ihes egin dot. Nora noa? Nora? Nora...?

Ez dakit. Bildur naz. Baso bidea latza da. Aize bidea zoroa. Eta izar biderik ez dakit. Non sar, non?

Gizarteak, munduak ito nau, ito. Ito!!

HERIO. — *(Itzalpetik agertuz)* Geldi!

UNAI. — Ezin neike.

HERIO. — Nor zara?

UNAI. — Norbaít.

HERIO. — Nora zoaz?

LINAI. — Ihesi.

HERIO. — Nora?

UNAI. — Ez dakit.

HERIO. — Zein bilatu nai dozu?

UNAI. — Edozein.

HERIO. — Zer nai dozu?

UNAI. — Askatu.

HERIO. — Ez zara aske, libre bizi?

UNAI. — Ihesi dabilena aske ahal da?

HERIO. — Noren edo nondik ihesi?

UNAI. — Zetarako ukatu? Minak jotako gizonak ez do-  
gu guzurrik esaten: katepetik.

HERIO. — Zegaitik?

UNAI. — Nortasun bila.

HERIO. — Ez ahal daukazu?

UNAI. — Garra, nahia bai.

HERIO. — Kateak daroazuz?

UNAI. — Soinean eta gogoan.

HERIO. — Gaiztakeriaz.

UNAI. — Gizonengan sinistutea gaiztakeria ahal da?

HERIO. — Luzaro?

UNAI. — Behin sinistu eta luzarorako zigortu.

HERIO. — Zerbait egingo zenduen.

UNAI. — Naizena naizen legez agertu.

HERIO. — Gorrotoz?

UNAI. — Odol garbiz.

HERIO. — Zegaitik daroazuz kateak?

UNAI. — On egitearen ordainez. Seme bat mundura  
ekartearren.

HERIO. — Ziri hori sartu haizeari.

UNAI. — Ikus nire zigorra.

- HERIO.—Agirian dago. Katepe arina.
- UNAI. — Arina?
- HERIO. — Bestela ez zenduen igesik egingo.
- UNAI. —Arina? Nire barrua gordin agertu nabala<sup>o</sup>,  
lau urterako katepea bota eusten.
- HERIO. — Bizitzaren hasiera.
- UNAI. —Bihotza nasaitu nebalako, hamabi urte.
- HERIO. — Umetasuna.
- UNAI. —Egia autortu nebalako, hamabi urte.
- HERIO. — Gaztaroa.
- UNAI. —Herriari kantuz ekin neutsalako, beste ha-  
mabi.
- HERIO. — Gordin haroa.
- UNAI. —Nire menpekoak berotu nituelako, bakoitzeko  
sei urte.
- HERIO. — Mundua ugaritzen ahalegintzeko eme miña.
- UNAI. —Diruari makurtu ez nitzalako, ez dakit zenbat.
- HERIO. — Hor ez dago legerik ez neurririk.
- UNAI. —Sinisten ez nebanik esan ez nebalako...  
egun bat.
- HERIO.—Bizitzaren arnasa.
- UNAI. —Ez zaitetz olgetan ibili. Kateen pixuz zoratuta  
ez ba nabil, larogeitatik gora kateperako ur-  
tetan, eta... egun bat. Horreik jakinak. Di-  
ruarenak aparte. Hirurogei urte daukadaz. Hi-  
rurogei eta larogeitak...
- HERIO. — (*Irriz*) Eta kakuzko egun hori...
- UNAI. —Oraindik gizonik ez da ehun eta berrogeitatik  
gorako urtez bizi.
- HERIO. — Bildurrik ez deustazu?
- UNAI. — Bildur?

HERIO. — Ba dakizu nor naizen?

UNAI. —Heriotze! Bildur izan da be, maite zaitut, askatu naikezulako, mundu zital honetatik gizontasunez atara naikezulako.

HERIO.—Libertadearen bildur zara?

UNAI. —Estutu, makurtu, ilundu, eten eta izorratzea, libertadea ote da?

Libertadea! (*Zoro antzera deika*) Gizonaren libertadea zer da eta non da? Non? Non?

GOSE. •— (*Bere ezkutupetik urtenda*) Ixo! Libertadeari deika? Zoro zagoz? Ez zenduke naiago nirekin etorri?

UNAI. —Zure arra kateen estuntzak baino ugartsuago eta zoliago da.

GOSE. — Nondik dakizu?

UNAI. —Oraindik zentzunean nabil. Gose madarikatu zara! Egunero arrakalatu nazun Gose zora-tzailea!

Ihesi noa! Gizon izan nahi dot. Gizon bizi nahi, ez arrastaka. Ez katez eta ez gosearen ugarez. Libre nahi dot! Libre!

(*Zarataka joaten da*)

## VI

### HERIO eta GOSE

GOSE. — (*Zirikalari*) Ikusten? Norentzako tantoa?

HERIO. — Bakarra ez da herria, ezta legea be.

GOSE. — Zer da herria?

HERIO. — Horma artean sartutako artalde makurra.

GOSE. — Zer da legea?

- HERIO.—Jan txakurren aterpea.
- GOSE. — Isil zaite.
- HERIO.—Egirik entzun nahí izaten ez dabenek esaten dakie berba hori: isil zaite. Zegaitik?
- GOSE. —Zoro zarealako eta zoroak zentzunezko egirik esaten ez dabelako.
- HERIO. — Eta zu?
- GOSE. —Sekula ez dozu entzun goseak kaskarra argitu egiten dauenik?
- HERIO. — Ez nekien gosea gizonaren posporoa zanik.
- GOSE. —Eta legeen sua.
- HERIO. — Nik uste neban estraperloen txingartxoak zaila. Ta estraperloa lege...
- GOSE. — Eriotzek indarrak ez daben errietan. Ez ukatu.

## VII

### HERIO, GOSE eta AMA

- AMA. — *(Beretik urtenda dator. Mintsu. Bera ohartuaz batera HERIO eta GOSE itzalean ezkutaten dira.)*

Zetarako? Zetarako jaió eta bizi, zetarako ametzesez ama egin eta intziriz erdibitu? Zetarako gure odola banatu, zetarako arnasa zabaldu eta gure haragiaren maminagaz mundua barrizatzen ahalegindu?

Barriro edestia historia, bere bidera doa... Lau urte baketan, sei gerratan, eta hamar laño, itzal eta kezcapean.

Barriro gure bizia semeen gorputzetan etengo da, eta gure haragia kale eta basoetan us-

teldu. Eta errekek gure odolez gorrituko dira eta lurrak gure haragi etenaren arrez uga ritu.

Non da, non, bizitzaren iturriaren begiralea?  
Non zaintzalea?

GOSE. — *(Itzalpetik agertuaz)* Nora zoaz hain zoro?

AMA. — Nire zatien bila.

GOSE. — Zetan?

AMA. — Injustizietatik iheska. Estutzetatik urruti. Gerratik ezkutaten.

GOSE. — Nora?

AMA. — Edonora.

GOSE. — Non dozu etxea?

AMA. — Mundutik hurrun nahi neuke. Edonun.

GOSE. — Eta jana?

AMA. — Ahal dan tokian.

GOSE. — Eta bizitza?

AMA. — Ahal dan eran. Edozelan.

GOSE. — Etan lo?

AMA. — Leizetan legez aitzetan.

GOSE. — Zegaitik zoaz?

AMA. — Bizi premiñan. Semei eragin nahiean.

GOSE. — Heriotzaren bildur?

AMA. — Ez.

GOSE. — Gosearen bildur?

AMA. — Ez dakit.

GOSE. — Zegaitik?

AMA. — Gure arteko gerratik iheska. Era guztietako gerretatik iheska.

GOSE. — Eta gerra zer da?

AMA. — Gose eta Heriotze baino mintsuago. Amai-

tzen ez den heriotzea, eta eteten ez dan gosea.

GOSE. — Zelan dakizu?

AMA. — Gizaldien gizaldietatik amak daukagun bere-tasunez. Gerra zer dan ez dakizu? Zatarzeria, injustizia, nabarmenkeria, kateak, sua, itota-suna.

GOSE. — Eta gosea?

AMA. — Galdu nahi irabazi, makurtu beharra, mututu beharra, ixilpean ito beharra, odola malkotan bota beharra.

GOSE. — Eta gosea.

AMA. — Bihurtu zure begiak. Begiratu edonora, mun-duko edonora. Sua, odola, gorrotoa, onda-mendia. Neuk ikusi dot. Neuk bizi izan dot.

GOSE. — Eta goserik ez?

AMA. — Gosea hasiera da, heriotza amaiera dan legez. Baina bitartea da sututen dauana, bitartea odolezko negarra amai ataraten deuskuna. Bitartea da soinez eta buruz ondatuten gai-tuna... (*iheska doalarik*)

GOSE. — (*Deika*) Itxaron! esaidazu gehiago...

AMA. — (*Barrutik*) Gerra madarikatua!

## VIII

### HERIO eta GOSE

GOSE. — Entzun?

HERIO. — Zuk beste.

GOSE. — Isilik egon zara.

HERIO. — Nire ordurako gertuten.

- GOSE. — Zer diotse Heriotzak ama zoroiei?  
 HERIO. — Biziten laga. Bizi diralarik, hil ziran. Eta zer Gosek?  
 GOSE. — Janaritzen laga. Eten ziran.  
 HERIO. — (*Zirikalari*) Bitartean?  
 GOSE. — Heriotzak eteten ez dakien bitarte luzea be ba dago. Ukatuko ahal dozu?

## IX

HERIO, GOSE, DIRU eta BITS

*(Diru eta Bits datoz. DIRU gizon lodi eta zakarra da. Nasai eta harro dator, BITS bere otseinari agintzen. HERIO eta GOSE itzaletan sartzen dira.)*

- DIRU. — Esan deutsut herriko alkatea erosi behar dala?  
 BITS. — Birritan be bai.  
 DIRU. — Birritan esan badot, onezkero erosia egon behar zan alkate azpizantzaile hori.  
 BITS. — Eta makurtzen ez ba da?  
 DIRU. — Ez dago gizonik urreak zuritu eta okertu ez dauanik, ez kolorerik urreak horituko ez duanik.  
 BITS. — Gaitza da, Gaiztoa.  
 DIRU. — Eta zer?  
 BITS. — Mutilzaharra da.  
 DIRU. — Hainbat errezago. Nok nastatu eta zeñek kontu hartu ez dualako. Ez dau iñoiz andre-gairik euki?

- BITS. — Geihegi.
- DIRU. — Gustokorik ez?
- BITS. — Aukeratu ezin ala.
- DIRU. — Alproja?
- BITS. — Zezen suzkoa.
- DIRU. — Odolak mehetu eragin.
- BITS. — Bere garaian.
- DIRU. — Eta barrabilak antzutu.
- BITS. — Noiz?
- DIRU. — Gaur bertan.
- BITS. — Nok?
- DIRU. — Txistik be ez. Entzun?
- BITS. — Belarritik sartu bai.
- DIRU. — Ez erantzun. Nire esana lege da.
- BITS. — (*Beretzako*) Edo ostikadea.
- DIRU. — Zer diñozu?
- BITS. — Ezer ez.
- DIRU. — Ez eidazu guzurrik.
- BITS. — Egia handiagorik ezin.
- DIRU. — Entzun? Nire esana lege da, lege.
- BITS. — Ezpata punteaz firmatua? Berak be badaki horretan.
- DIRU. — Zetan?
- BITS. — Legetan.
- DIRU. — Kopletan.
- BITS. — Lege gizona da.
- DIRU. — Gure alde. Legean artikulu geihenak diruari begira eginak dira, gizatasunaren eta ontasunaren aitzaki.
- BITS. — Eta multak?

- DIRU. —Diru morduak zaintzeko ipintzen diran hamarrenak.
- BITS. —Ba nekien gaurko legea diruz dirutzea dala.
- DIRU. —Ez nagisu zirikatu. Zoaz, bilatu eta egin.
- BITS. —Ahal bada.
- DIRU. —Ezagutu dozu inoiz nire agindurik ez beteten? Nik esan dodan zerbait, ezagutzen? Zeren bildur? Esan, esan... zeren bildur? Mamuak eta txorimaluak ikusten? Non dagoz, non? Zek kikilduten zaitu, zek?
- BITS. — *(Gose'ren itzala igarriko dau ihes egiten)*  
Begira... begira... ihesi doa... ihesi...
- DIRU. —Nor zan?
- BITS. —Ziur ez dakit.
- DIRU. —Esaizu, nor, nor?
- BITS. —Gose!
- DIRU. —Gose txomorro horren bildur zara nigaz ibilita? Oraindik ez zara konturatu nor naizen? Nor da, nor, ni bezain altsu? Zein da, zein, ni bezain indartsu?
- BITS. —Ixo, ez harrotu.
- DIRU. —Niri hori? Niri?
- BITS. —Harkaitzak tinko dagoz eta mendiak zutik.
- DIRU. —Eta txindurriak be bai mendietan, zu gizar-tean antzera. Harkaitzen eta mendien indarra beheratuten da gaur.
- BITS. —Zelan?
- DIRU. —Dirurik ba dago makinarik ez da faltako.
- BITS. —Edo bai.
- DIRU. —Ixo!
- BITS. —Ixo! Ixo! Ori. Ixo! Diruaren arrazoia: Ixo! Ixo! Itsu! Mutu! Horrela nora? Ba noa.

DIRU. — Nora?

BITS. —Ezin nei bihotz bakoan artean jarraitu. Ni txatxarra izango naiz baina arra. Arra.

DIRU. — Arra? Nun dozu giharra?

BITS. — Diruk nahi leuke nire kaskarra.

DIRU. — Soina bezain baldarra?

BITS. — Edo urrea bezain gangarra. Dana ahal zeinke?

DIRU. — Zeñek diño ezetz?

BITS. — Dana? Izarrik egingo zenduke?

DIRU. — Odei artera ez igo. Munduan gara.

BITS. — Eta urik? Urik egingo zenduke?

DIRU. — Ura? Ura...? Nok argítu zaitu galdera horretan? (*Barre algarakaj* Ura egin...

HERIO. — (*Zutunduaz*) Eta heriotze gainduko zenduke?

DIRU. — Nor zaitut?

HERIO.—Esan deutsut. Ezagutzen ez? Itzutu?

DIRU. — Nor zaitudan dinot.

HERIO.—Zuk «kutun» dozun Heriotze.

DIRU. —Ken hemendik. Ken aurretik.

HERIO. — Onez ala aginduz?

BITS. —Ez elkar gogortu, mesedez.

DIRU. —Ken, ken zu. Batez nai bestez.

BITS. — Ez harrotu.

HERIO. — Ni?

DIRU. — Bai, zu.

HERIO. — Asko ahal zeinke?

DIRU. — Asko? Dana.

HERIO.—Ondasunak zabartu...

DIRU. —Nai dodan eran.

HERIO. — Neskatilak izorratu...

DIRU. —Lirainenak eta atseginenak.

HERIO. — Atsoak atzipetu...

DIRU. •—Komeni diranak.

HERIO. — Uztak erre...

DIRU. — Negozioa da.

HERIO.—Agintariak erosi...

DIRU. —Zenbat dagoz makurtzen ez diranak? Ja, ja,  
ja,...

HERIO. •—Zuzenak katepetu...

DIRU. — Zoroak!

HERIO. — Gorrotoak biztu, amen maitatasunak garrazu...  
tu...

DIRU. — Amaitsuak.

HERIO.—Gizartea okertu, gerrak hasi eta luzatu...  
Baina nire aurrean ez zara inor.

DIRU. —Zoaz, zoaz aurretik.

HERIO. •—Ez daukazu indarririk horretara biartuteko.

DIRU. — Haizetu?

HERIO. — Ni? Ez zaitez zu haizetu. Ez nazu mendetuko.  
Zure indarrak ahalik ez dabe nire aurka.

DIRU. — Non da nire...

HERIO.—Ezpatea? Heriotzaren aurrean ezpateak indarririk  
ez daukanik ez dakizu? Ezpatak heriotzaren atzapar diranik jakin ez?

DIRU. — Atzeratu zaitez.

HERIO. — Nahi dodanean.

DIRU. — Atzeratu! Atzeratu!

BITS. —Ez zaitez sartu.

HERIO.—Zenbat eta zoroago eta ariñago makurtuko  
zaitut.

DIRU. — Diru naz. Diru!

- HERIO. —Eta ni...
- BITS. —Geldi! Etxatzu komeni.
- HERIO.—Zu be nire aurka? Zetarako zaitut? Kendu!
- BITS. —Etxatzu komeni Diru hilterik.
- HERIO. —Nor zara?
- BITS. —Hobe zuk ez jakitea.
- HERIO. —Nor zara?
- BITS. —Zu zeu ez zarena: Zentzuna.
- HERIO. —Niretzat, zentzun naiz zoro, danak bardin.
- BITS. —Zoritxarrez.
- DIRU. —Ez egizu alferrik jardun. (*Herio'ri*) Esan, esan, zer daikezu zuk?
- HERIO. —Nire korainea ez da atzeratuten behin jagi eragin ezkeru.  
*(Indarrez ikutu egiten dau korañeagaz Diru. Bits ibiliko da hau atzeratu nahiean, baina elkar arteko zirti-partetetan, Diru makurtzen igarriko da, okertuten.)*

## BIGARREN EKITALDIA

*(Heritik kanpora, etxe aberats bateko gela eder bat. Apaindura ugari. Sofa bat leiho aurrean.)*

í

### DIRU eta BITS

- DIRU. — *(Sofan eserita, gaixo. BITS, irudiak agindu ala ibiliko da, zeregiñetan (Deika) Bits! Deitu osagileari.*

- BITS. — Itxaron.
- DIRU. — Min daukat.
- BITS. — Eutsi.
- DIRU. — Ezin nei.
- BITS. — Ez etsi.
- DIRU. — Bits!
- BITS. — Jauna!
- DIRU. — Lotsagabetu egin zara?
- BITS. — Ikasten.
- DIRU. — Iñor ez da ausartu zu legez nire aginduei irri egiten.
- BITS. — Nik irririk ez.
- DIRU. — Bete be ez.
- BITS. — Zure mesedez.
- DIRU. — Ala danetan.  
(*Ixilunea.*)
- DIRU. — (*Barrero deika*) Bits! Bits! Bits!
- BITS. — Deika?
- DIRU. •— Gortu zara?
- BITS. — Batzuk gaiztotu haina.
- DIRU. — Izerditan nago. Larri. Ekatzu VViski bat. Bizkor.
- BITS. — (*Eztula egiten dau, zirikalari.*)
- DIRU. — Min zoro hau ezin kendu. Ametsik ezin gaindu. Pentsamentu ilunik ezin baztertu. Zetan zagoz? VViski bat berehala.
- BITS. — Nik emonda ez. Gehiegi hartzen dozu.
- DIRU. — Ekatzu. Mozkortu nahi dot, mozkortu eta ton-tor hau uxatu.
- BITS. — Galerazota daukazu.
- DIRU. — Osagileak? Norbera baino hoberik nor?

- BITS. — Osasunaren kaltez diarduzu.
- DIRU. — Ez eidazu erantzun.
- BITS. — Erantzungo deutsut.
- DIRU. — (*Haserre*) Bits!
- BITS. — Eta agindu.
- DIRU. — Bits!
- BITS. — Eta behartu.
- DIRU. — Bits!
- BITS. — Eta gogortu.
- DIRU. — Isil. Isil. Naiku da.
- BITS. — Gizon haundi guztiak umetu egiten zarie gai-xoak jotakoan. Umetu.
- DIRU. — Ez eidazu horrela hitzik egin.
- BITS. — Ez naz isilduko. Zure zerbitzari naz eta zaindari. Ez dakit zergatik. Esker txarrerako.
- DIRU. — Diruagatik.
- BITS. — Diruagatik egon banitz, zure erdiak nireak ziran eta ez nitzan hemen egongo. Zer esanik honetzaz?
- DIRU. — Ez. Baina ez naz zure menpeko, nagusi baino. Jakin egizu eta kontuan euki.
- BITS. — Gaixoa beti da iñoren mendeko. Zer daikezu zuk orain bertan? Zer?
- DIRU. • — Ez nagizu larritu.
- BITS. — Orain ile bi herri guztia dardaraz eta bildurrez zeukan. Uste zenduan herri osoa zure eskuan zenduala.
- DIRU. — Isil, isil mozolo hori.
- BITS. — Zureak ziran jaiak, zureak txaloak eta algarak. Zureak ziran neskatilak. Zureak herriko irabazpiderik onenak. Zurea lege eta zurea ospea. Eta gaur?

- DIRU. — Gaur zegaitik ez?
- BITS. —Gaixoa! Ni ikusi ezin nauzun ni ez banitz...  
arrak eta zorriak eta zikinkeriak jango zenuke.
- DIRU. — Bits!
- BITS. —Gezurretan ahal nabil?
- DIRU. —Nire minak bizitu eta gordindu nahi dozuz?
- BITS. —Zure zentzuna argitu nahi dot.
- DIRU. —Nok zirikatuten zaitu horretara?
- BITS. —Nire bihotzak. Ez beste iñok.
- DIRU. —Bihotz ustela. Bekatuan jausitako emakumearen bihotz sikua daukazu
- BITS. —Ez dakit nirea zelako dan. Batzuk ez daukena ba dakit.
- DIRU. —Niretzako ziri hori?
- BITS. —Eta begirik be ez daukena ba dakit. Eta zentzunik be ez daukena ba dakit. Eta... eta besteak.
- DIRU. — Zer besteak?
- BITS. —Besteak isilik gordeten dodaz.
- DIRU. —Zeinen aurrean zagozen ba dakizu?
- BITS. —Nik ez dakit atzetik hitzik egiten.
- DIRU. —Esan deutsu osagileak ze gaixo daukadan?
- BITS. — Niri?
- DIRU. — Zegaitik ez?
- BITS. — Ta zegaitik bai?
- DIRU. —Argiago zan Pílemon medikua.
- BITS. —Orduan gaixo jakiña zenduan. Aberatsena. Hamar mila peseta kendu deutsuzan, eta sendatu.
- DIRU. — Halaxe da.

- BITS. —Nik halako gaixoak, bost aspirina hartuta uxatzen dodaz.
- DIRU. —Encefalitis zitala zan nirea.
- BITS. —Nirea burukomiña. Ez dakizu? Grecian mundu guztiak encefalitis eukiten dau. Han aberatsak bakarrik eukiten dabe burukomiña. Eta burukomiña kenízia hemen encefalitis kentzia bezain gaitza izaten da.
- DIRU. —Irrika zabiz ala nahastu gura nazu?
- BITS. —Nik ez. Osagileak.
- DIRU. —Esaidazu. Ze gaixo daukat orain?
- BITS. —Igarten ez?
- DIRU. —Miñetatik?
- BITS. —Edo medikuen esanetatik.
- DIRU. —Ba dakizu hitzik egiten ez dauana.
- BITS. —Hortik ezagutzen dira medikuak. Hitz asko egiten ba dabe, ez estutu. Ez du gaitzak erru askorik.
- DIRU. •—Eta gitxi egiten dabenetan?
- BITS. —Kartera mehea daukazula adierazoten ahalegindu.
- DIRU. —Abogaduekin nahastuten dozuz?
- BITS. —Ba dira abogaduak haina hitz egiten daben osagileak. Batxillerato bardiña ikasten dabe.
- DIRU. —Argiago zaite.
- BITS. —Marteko tximiñoiak be igarten dabe osatu eziña dala.
- DIRU. — (*Larri*) Sits eta bits esaidazu.
- BITS. —Ulertu nahi ez?
- DIRU. —Esan, esan benetan eta argi.
- BITS. —Egunoroko kezketan hasi gara? Egunoroko ekiñean?

- DIRU. —Osatu ezin leikian gaixoen bat al daukat? e' Isil? Zer leike?
- BITS. — Ez dozu burutik...
- DIRU. — Bizia? Kantzerra?
- BITS. —Esan deutsu osagileak?
- DIRU. —Dakizun legez, barbarik be ez.
- BITS. —Zuk be ez egizu barbarik.
- DIRU. —Eta zer? Zer nahi dozu. Ito nadila? EgUNETIK egunera makaldu eta jausi nadila? Bits!
- BITS. — Jauna!
- DIRU. —Aspaldian niretik ataraten atsegindu zara.
- BITS. —Edo zu zuretik urteten ahalegindu.
- DIRU. —Kanpora bota zeinkidaz.
- BITS. — Barruan baino hobeto nengoke. Eta nor eka- rri?
- DIRU. — Edozein.
- BITS. —Eta ni bezain morroi ez balitz? Eta zintzo ez balitz?
- DIRU. — Zintzo!... Harro! Beste bat. Edo bestea. Di- ruak edozein bilatu eta ekarten dau.
- BITS. —Gaixoaren atsak be edozein atzeratu leike. Non dira zure lehengo... aspijantzaileak?
- DIRU. — Nor dabil ingurutan?
- BITS. —Haizeak bildurtzen zaitu?
- DIRU. — Ez zaite akulari... Nor dabil?
- BITS. — (*Begiratuaz*) Betikoak. Erleak. Txoriak. Haizea.
- DIRU. —Neiku da. Nor dabilen esan dot, ez nabil ame- tsetan.
- BITS. —Iñor etorri leikenik pentsatzen dozu? Oi! eta egitan. Atsoa!
- DIRU. —Zein?

- BITS. —Orahin arte sasi jakintsutzat euki dozun atsoa.  
 DIRU. — Itxaron eragin.  
 BITS. — Zetan?  
 DIRU. — Gizonak ez gara beti egoten ifloren aurrerako.  
 BITS. —Ba! Mundu erdik ez zaitu narru gorrian ikusi?  
 DIRU. — Mesedez! Bits!  
 BITS. —Egiarik ez da ezkutatu behar mesedez.

#### DIRU, BITS, eta ATSOA

- DIRU. — (*Atetik burua erakusten dauen Atsoari*) Sar-  
tu, ikusi eta egin behar dana.  
 ATSO. — Zer da hemen? Nor da nire jakituri kaxkarra-  
ren eskale? Gaixo, Bits?  
 BITS. —Ni? Gaiztoz, eta or dagoana, ez onez.  
 ATSO. — Oi Diru jauna? Gure Diru?  
 BITS. — Zana.  
 DIRU. — Naizena.  
 ATSO. —Eta da, da... Gizonik ez da aldatzen. Ez ei da.  
Okertu zuzendu baino geitxuago, baina alda-  
tu ez. Ikustea nahi? Borondatea hala dala...  
 DIRU. —Borondatea? (*Garratz*) Zer da erakutsi behar  
dana?  
 ATSO. — Geldi. Nasai egon. Begietatik igarriko deu-  
tsut. Begiak dira barruaren espilurik onen.  
 DIRU. —Ikus... ikus... Egin lehenbailehen egiteko  
hori.  
 ATSO. —Ez bildurtu. Ikusi, ikusi bakarrik.  
 DIRU. —Zai nago.

- ATSO. —Zabaldu begiak... zabaldu... zabalago.
- DIRU. —Sorginkeriarik ez gero.
- ATSO. —O, Diru jauna. Sorgiñak joan ziran, joan... Ti-  
ra, zabaldu... Ez keinurik egin. Ba, ba... Al-  
cool pixkat...
- BITS. —Ondo erreta honezkero.
- DIRU. — Bits!
- BITS. — Zer?
- DIRU. — Ixo!
- BITS. — Kito.
- ATSO. —Eragin ezkerratara... Ez bildurtu. Horrela...  
Bizi modu ontxoaren ondorenak. Koipeak?  
Gantzak!
- DIRU. — Ostera be?
- BITS. — Bekatu ariñak.
- DIRU. — Ze bekatu? Lotsagabe!
- BITS. —Zimelkeriaren arrak.
- ATSO. —Díru bekatari? Bai zera! Egon... egon... Ez  
keinurik egin. Eutsi.
- BITS. —Ohiturarik ezin galdu.
- DIRU. — Itsutu egiten nau horrek.
- BITS. — Ni zezen?
- ATSO. —Laino orrek... Koipea baino gehitxuago be...
- DIRU. —Zer? Zer?
- ATSO. —Ez estutu. Estututa ez da ezer erabagiten.  
Gaitz garratza da mamiñean sartua.
- DIRU. —Zelako?
- ATSO. —Oraindik egunak ba duzuz mundurako, baina...
- DIRU. — Egunak?
- ATSO. —Ba dira ezdaukenak be.
- DIRU. —Esaidazu garbi. Garbi!

- ATSO. —Hilabete ta... bizi ziñei orahindik.
- DIRU. — Ez, zer diñozu?
- ATSO. —Hilabeteko bizia askok izenpetuko leuke munduan, askok. Hilabetean asko bizi lei.
- DIRU. — Andratxo!
- ATSO. —Eta asko konpondu.
- DIRU. — Nondik dakizu?
- ATSO. —Ez berotu. Berotuta ez dira odolak mehetu eta garbituten.
- DIRU. —Sorginkerietan ez zaite jostatu.
- BITS. — Dakiana agertzeko ez deutzazu deitu?
- DIRU. —Jarrai. Ikusi sakonago.
- ATSO. — Min garratza daukazunik ez zenkien?
- DIRU. —Nongo... Min bizia? Kantzerra?
- ATSO. —Sinisteko gogorra izaten da, baina agiri agirian dago. Eta zetarako ukatu...? Deituten ahal deusku iñok osatu eziña dala konturatu edo jakin aurretik?
- DIRU. — Osatu eziña?
- ATSO. — Edo hilkorra.
- DIRU. — Hilkorra?
- ATSO. —Heriotzak bildurtu egiten zaitu? Ez da hain besteko zatar. Eta ez da iñor jaio gatzetako.
- DIRU. —Andratxo, zoaz, zoaz hemendik.
- ATSO. — Nik ez deutsut bildurrik.
- DIRU. —Ni sututen etorri zara? Madarikatu!
- ATSO. —Sutu? Egiak mindu? Hilabete biziko zareala esan deutsut.
- DIRU. — Ziurtatu ziñei? Zelan?
- ATSO. —Beste zerbait begiratzen ez deustazu itxiko? Bai, gaixo, bai... zabaldu bularra.

- DIRU. —Naikoa da. Ní... ni... zure aurrean...
- ATSO. —Uletxo bat gora behera ez gara berotuko. Ez gara zurbilduko.
- DIRU. —Zuk u...
- ATSO. —Ametsik ez dozu egiten?
- BITS. —Betiko andinahikeriak.
- DIRU. —Nire ametsen barri zertarako? Nire gaixoa nik esan da igartea nahi.
- ATSO. —Ametsetatik? Konzientziako gaixoak norberak osatzekoak izaten dira. Eta baleiteke...
- DIRU. —Hortik ez. Hortik ez jarraitu.
- ATSO. —Konzientzia be hil egiten da gero!
- DIRU. —Esan deutsut...
- ATSO. —Bai, bai, gorputzera jo daigun. Mamiñera. Ia... zabaldu bularra. Zabal.
- DIRU. —Zer ikusteko?
- ATSO. —Bularra bakarrik. Ba! Umeak ere holaxen ibiltzen dira.
- BITS. —Ahotik kendu deustazu.
- ATSO. —(*Bularra ikusiaz*) Papar ederra, baña...
- DIRU. —Eta zer orahin?
- ATSO. —Itxaron. (*Bularra atzaparrekaz jo, sokatxo bat atara eta sorbaldetik zilera neurtuten igarriko da.*)
- DIRU. —Zer dauka ze ikusi sorbaldak eta ukondoak, eta zileko zuloak? Bits!
- BITS. —Jauna!
- DIRU. —Berrogetamar egunetan ur eta ogi hutsez euki daiela sorgin hau ia argitzen ete dan.
- BITS. —Zeñek leike?
- DIRU. —Non dira morroiak? Zetarako dira diruak?

ATSO. — Diru! Hogetamar, berrogei egunetan euki nai-kezu. Gehiagotan zure agíndurik ez dabe be- teko. Berrogei egunetan gauza asko konpon- du leiz. Ohitua nago, ni, ohitua menditako ba- kartadeetan.

Nire iritzia jakiten ez deustazu deitu? Horra argi. Eta nik, ba dakizu mesedez bakarrik egi- ten deusut lan hau. Horra. (*Joaten da.*)

### III

#### DIRU eta BITS

BITS. — Bildurtu zaitu.

DIRU. —Sorgin madarikatua! Berrogei eguneko bizia bakarrik daukadala baneki...

BITS. —Berrogetabi bizitzen ahaleginduko ziñake. Edo ehun.

DIRU. — Nire burua botako neuke.

BITS. — Koldartiegi zara.

DIRU. — Eta dana erreko neuke. Dan dana.

BITS. — Ez zara zoro hori egiteko.

DIRU. — Atso horrek igarten dauenik ba dakizu?

**BITS.** — Horretan dau bere entzutea.

DIRU. •— Non ikasia?

BITS. — Bizitzan.

DIRU. — Nongo bizitzan? Basamortuan?

BITS. — Ez ete hantxe garbien bizitzea? Urak be gar- bien basamortuan igaroten dira.

DIRU. —Sorgiñ etxean eta akelarretan?

BITS. —Dana dala. Eta orain zer?

- DIRU. —Zer? Ez dot sinistuten nire gaixoan. Ez dot sinistuten. Nire diruen atzetik zabiltze danok. Danok. Ez deustazue ziririk sartuko. Ez deustazue sinistu eragingo. Danok bat egin do-zue. Bat. Ekatzu VViski.
- BITS. —Esan deutsut, lehen be, nik emonda ezetz.
- DIRU. —Laga eidazu mozkortzen. Mozkortu ta miñak ahaztu. Mozkorpean ez dago miñik ez gaitzik. Ez dago penarik. VViski! VViski!
- BiTS. — Ez hainbeste zoratu.
- DIRU. —VViski! Nik agintzen deutsut. Nor da, nor, ukatu leikedana?
- BITS. — Ni.
- DIRU. —Ozkil ori! Kopa bat, bi edo lau. Behar aina. Ekatzu. Eta emakumeak. Deitu Bibi'ri... Ez. Hezurretarako etorriko dira denborak. Deitu Lutziri. Ziriñago da. Bardin da. Deitu arin. Baina, lehenago, ekatzu VViski. Zetan zagoz?
- BITS. —Askotan geldi geldi egonda on gehiago egi-ten da.
- DIRU. — *(Jaiki eta armariora tatarrez joan da botila bat hartu eta edaten hasiaz.)*
- BITS. — *(Kentzen aleginduaz)* Ez! Ez! Nik ahal dodala ez dozu hartuko. Zure gaixoa gordinduko dozunaz ez zara konturatzen? Ahalegin pizkat zure aldetik.
- DIRU. —Nongo gaixo? Gorputza bero dan artean ez dago gaixorik. Edan... edan... eta lo, lo na-sai, lo zorionean. *(Eztulka, zatarki)* Lo mozkorrean! Non da musika? Non dira...

#### IV

#### DIRU, GOSE eta AMA

- AMA. — (*Garratz, atean agertuaz*) Ibon! Ibon!
- DIRU. — Non dira neskak?
- AMA. — Ibon!
- DIRU. — Kaleko neskak!
- AMA. — Ibon!
- DIRU. — Amatuteko lizunegi diran neskak, non dira?
- AMA. — Entzuten ez, Ibon? Entzuten ez? Diru deitzea nahiago?
- DIRU. — Zetan zatoz?
- AMA. — Oraindik be lotsatu?
- DIRU. — Zetan baina? Nok deituta?
- AMA. — Ez zara lotsatuten zure semeak izan leikezainak hiltzen dituenakaz, eta zu bizira ekarri zinduzunagaz lotsatu?
- DIRU. — Umekeriak! Iñok deitu deutsu?
- AMA. — Bihotzak.
- DIRU. — Galdutakoa bilatu?
- AMA. — Zital! Neure eskubidez nator.
- DIRU. — Eskubideak? (*Guzur irriz*) Beti eskubideak?
- AMA. — Amatasunak damostan eskubidez nator. Odolaren eskubidez.
- DIRU. — Zeinek zabaltzen ditu hemen ateak, Bits?
- BITS. — (*Destaintsu*) Kendu amari bihotzeko giltza.
- AMA. — Zure gaixoaren barri ba dakit.
- DIRU. — Atsoen sorginkeriak! Nongo gaixo?
- AMA. — Ez ametsik egin, Ibon. Edo Diru. Nire bakar-tadeetan, zuk sartu eta baztertu ninduzun ba-

kartadeetan, zure min, zure zotiña, zure deia entzun izan dot. Zure ama naiz.

DIRU. — Nik deitu deutsut.

AMA. —Zure urrikiak ekarri nau.

DIRU. —Nire urrikiak! Urrikiak gaixoen eta makalen argaltasuna da.

AMA. —Ez zaitez harrotu.

DIRU. —Harrotu? Norbere jaube agertzea harrokeria da?

AMA. —Zure bizia...

DIRU. —Libre naiz bizitzeko. Libre nahi dodana egiteko. Hogeitertan kanpotik ibili zara.

AMA. —Ibili bai. Diruren ama eskale. Zure lotsagarri eta burlaz.

DIRU. —Ez zenduan horretarako premiñarik.

AMA. —Ez bera bizi izan balitz.

DIRU. — Koplak.

AMA. — Ez zara gogoratuten?

DIRU. — Ez etorri lege zaharreko kontuekin.

AMA. —Zu ez zara aldi haretako, ustez. Eta gure kontuak dira.

DIRU. —Beste batetarako gorde.

AMA. —Ezin. Horixe ezin. Ba dakizu aita zelan hil zan.

DIRU. —Gartzelan geratu balitz, etzan hilgo.

AMA. — Bihotz gabe! Aita gartzelan zuk sartu zenduan.

DIRU. — Nik ez.

AMA. —Edo zugaitik. Eta ez lapurretaz. Ez gaiztake-riaz.

DIRU. — Ez dakit.

AMA. —Gerratean jakin zenduan «zerbait». Hahas-tuten.

- DIRU. — Hori gogoratuten zatoz?
- AMA. — Nik ezin dot burutik kendu.
- DIRU. — Traidorea izan naizela adierazoten?
- AMA. — Zu zeuk be hala uste dozu?
- DIRU. — Zegaitik aitak eta nik, edo nik eta aitak, ideia berdiñetan jokatu bear genduan? Zegaitik?...
- AMA. — Zegaitik nik esan barik zeuk erantzun deus-tazu?
- DIRU. — Zegaitik bizi-bide bardiña eroan behar?
- AMA. — Aitari omen egitera behartuta zengozan.
- DIRU. — Pentsamentuetan? Zegaitik?
- AMA. — Ez jatzun komeni, ez.
- DIRU. — Non da aitak goratzen eban gizonaren libertadea?
- AMA. — Zetarako? Zeure erara jokatzeko? Aitak bae-kian zer zan benetako libertadea.
- DIRU. — Eta nik ez?
- AMA. — Iñor izorratzea ez da sekula libertadea.
- DIRU. — Hobe, Ama, lehengo tokietan jarraitu.
- AMA. — Ez! Ez! Horí nahi zuk. Baina, ez! Dirutan nahastu zinduezan. Diruak itsutu zinduzan. Mozkortu. Mozkortu. Horigaitik ez zenduan nahi...
- DIRU. — Ez jarraitu. Ba dakit zetara zoazen.
- AMA. — Hori, Hori. Ez zendun nahi iñor kontu hartuko eutsunik.
- DIRU. — Ume ahal nintzan?
- AMA. — Zahartu ziñan. Eta dirutu. Dirutu lapurretatik horretxen bila zenbiltzan.
- DIRU. — Ez ahal neukan nik aitarenetan parterik?
- AMA. — Bazenkian aitak zintzotasunez erabiltzen zitu-  
an ontasunak norenak ziran. Bazenkian be-

reak ez zirala. Eta bazenkian gerratearen hasieran ondasun horren jaubeak zoritxarrean jausita egozala.

DIRU. —Non sortu zenduan disko hori?

AMA. —Eta saldu ziñan. Itsutu. Eta zatarkerietan jokatzeke, aita be giltzapean sartu zenduan, zeu libre geratzearren lapurreten jaube. Hori da nahi zenduan libertadea?

DIRU. —Kontuz hitzekin.

AMA. —Danak dakie aita zuk salatuta gartzelan sartu ebela. Behar bada ez geroko txarrik pentsatuta.

DIRU. —Nok daki hori? Zelan esan lei hori?

AMA. —Ez ukatu, iñok baino hobeto dakizunik. Hitza jan eta mututu eragin eutsuen, diru zoroen garrak.

DIRU. —Zoratuta ahal zagoz zeu, zoratuta?

AMA. —Eta diruagaz horditu ziñan, horditu. Eta lizundu. Eta zatartu. Bihotza galdu zenduan. Zuk bihotza galdu eta aitari burua galdu eragin, gartzelan bere buru errugabea ikustean.

DIRU. —Naikoa da.

AMA. —Biziak azkenik ez baleu antzera jokatu dozu. Eta kalean edozek, edozek zure zatarkeriak salatuten ditu.

DIRU. —Mesedez. Atea zabalik dago, ama.

AMA. —Kalean izentaten ditue zure semeak eta aitarik ez ei dauke.

DIRU. —Zeren bila zabiltz?

AMA. —Iñorentzat duin ez dirala ezagutzen dodaz hainbat neskatila, txanda baten zure jostalu izanak. Gaur iñok nahi ez dituanak.

DIRU. —Ez diñoen zenbat diru emon neutsen?

- AMA. — Ez zindudazan hain zikin sortu, lotsagabe!
- DIRU. — *(Lotsaz)* Ez diñozu etxekoen lotsak joan zizala?
- AMA. — Ez destañez jardun. Ez nator diru eske. Ez nator ondasun eske. Ohitu naz miserietan. Goseari eta ezetzari egiña nago. Baina gauetan amets egiten dot. Ezin dot kendu gauero nire amets larria. Zure aitagaz bat egiten dot gauero, eta gauero izerdietan, izerdi hotzetan itxartuten naz. Koldarti izan nintzan, koldarti.
- DIRU. — Goseak hartu deutsu burua.
- AMA. — Ez, Ibon, ez. Egunari bildurrik ez dausat baina gabari bai. Nik be bekatu egin neban, zure maitakeriaz, zure itsutasunez bekatu egin... *(Geldiro, geldiro, antzokiaren atzena aldatu egiten da, izara zuri bat bitartean gelditurik. Antzez tokiaren aurre zatia ilunetan geratzen da. Atzean izara ostean, argia zuri zuri, ta bertan, UNAI eta AMA itzaletan, sombratan igarriko dira eta euren hitzak sakon eta zoli entzungo dira.)*

## V

### Lehengoak eta UNAI

- AMA. — Hitz eidazu, hitz eidazu!  
*(Ixilunea.)*  
Ez zaite holako. Hitz eidazu!  
*(Negarra.)*  
Zure kateak baino zure isiltasun honek gehia-  
itoten nau. Ez zaite mutu!

- UNAI. —Zure negarrak ez nabe azkatuko, emaztea zarealako. Ama legez negar egingo bazendu, ama legez negar egiten jakingo bazendu...
- AMA. —Ez eidazu horrela hitzik egin, Unai. Ez nagizu bidetik atara.
- UNAI. —Hilgo nabe. Ziur egon. Begira nire kateak. Heriotza-ra kondenatu daben baten kateak dira. Ez dakit orahindik zer dan nire bekatu.
- AMA. —Gerrako kontuak. Fede onez itxaron egizu.
- UNAI. —Gerran eta bakean gizentasuna zainduteko ko eskubidea daukat. Gerran eta baketan zuzentasun baién menpean zainduteko eskubidea daukat.
- AMA. —Ez deusut ukatzen, Unai.
- UNAI. —Nik ez dakit orahindik zer dan nire bekatu. Ezin naz konturatu. Zure semiak, nirea ez da kontu egizu...
- AMA. — Unai, mesedez!
- UNAI. •—Zure semeak jakin lei.
- AMA. — Ezin zinei holakorik esan.
- UNAI. —Anai arteko gerretan anaiak legez aitak behilten dira. Historia ez da gaur hasi. Zaharra da. Eta beti, beti, ideien atzean beste zerbait egoten da.
- AMA. —Ibon gaitik ezin zinei ezer esan. Badakit ez dauela zure antzera pentsaten, baina...
- UNAI. —Pentsamentuetan ez dago gaitzik. Gizonak libre behar dau nahi dauen eran pentsateko. Aitak eta semeak ez dauke zetan bardin pentsatu. Ba dakit. Baina zentzunez, bihotzez, gizatasunez, legez, inoren errespetuz. inoren libertatea norberaren hainako dala jakin eta ezagutuz.

- AMA. —Hobe litzake horrela.
- UNAI. —Guk sortu genduan Ibon... gaur Diru da. Zegaitik «Diru»?
- Eta diruak, mundua mundu dala, odolik ez dauka. «Diru» zure seme honek be... begira nire kateei. Nik ez dot nai Diruk eteterik Ibonek, gure seme horrek askatzea baino, Semea izan, nahiz ez izan, gizontasunez.
- AMA. — Unai!
- LINAI. —Ez dot gehiago hitzik egingo. Katepean hilgo naiz. Baina diruan hotsak ez dabe isildu eragingo injustizia bat lotu daben kanpaien durundurik. Dana galduko da, baina beti, beti, konzientziak bere eguna eukiko dau.
- AMA. —Zegaitik sartzen nazu ni be tartean? Minduten nazu.
- UMAI. — Handiagoak eroan beharko dozuz.
- AMA. —Zer da nire bekatu?
- UNAI. —Konzientziari itandu.
- AMA. —Horrek ez diñost ezer. Mesedez! Zer da nire bekatu!
- UNAI. —Konzientziari itandu. Eta semiari ez ezkutatu.
- AMA. —Baina Unai...
- UNAI. —Ni, ni hiltzen ba naz...  
*(Barrero atzean iluna egiten da, eta antzez-tokia lehengo erara geratu, ametsaren irudia amaituz.)*

## VI

### DIRU, BITS eta AMA

- DIRU. —Ez dot nahi ezer jakin. Kanpora! Burua gal-

du dozu! Emekeriak! Emekeriak itsutu zaitu.  
Biziten laga egidazu.

AMA. —Zuk ba dakizu aitak kartzelatik ihes egin ebala.

DIRU. —Zegaitik?

AMA. —Burua galduta. Errudunak ez dabe bururik galtzen gartzeletan.

DIRU. —Mendian be burua galtzen dabe batzuek. Barkartadeko miñak jota.

AMA. —Nire konzientziak egunero diñost, Ibon... edo Diru, ez nebala emazte izaten jakin, ama iza-teagatik. Eta ama izaten ez nebala jakin zuk itsutu ninduzulako.

DIRU. —Laga nagizu. Nik ez dakit ezer. Bigunkeriak eragiten deutsuzan asmoak dira, horrek. Sor-ginkeriak eragiten dituan problemak. Txotxin-keriak.

AMA. —Ibon! Zu baino lehenago jaiο nintzan.

DIRU. —Ekatzu Wiski bat, Bits. Entzuten? Non da nire Wiski?

## VII

### DIRU, BITS, AMA ta LORE

LORE. — (*Sartuaz, garratz eta zital*) Itxaron pixkatzen. Geroago hartuko dozu. Ez zaitut nahi mozkor eta zatar ikusi.

DIRU. —Kanpora! Bits! Nok agindu deutsu atea zabaltzeko?

LORE. —Ez dago gizonen indarrik orain atea itxi leikedazanik.

- DIRU. —Memelotu egin gara, Bits? Kanpora esan dot. Deitu barik sartzen da?
- LORE. —Nigaz deitu barik sartu zanarekin ikasi neban deitu barik sartzen.
- DIRU. —Nun zagoz, Bits? Ez zaitut nahi ikusi. Kanpora.
- LORE. —Hitzen indarrez, ez.
- AMA. —Zerbait nahi?
- DIRU. —Bizi guztian eskale. Lotsagalduko eskale. Eskearen bizioa hartuta zabiltz.
- LORE. —Ez da horrela. Amatu ninduzunetik. Eta premiñetan bakarrik, legez bestera izan da be.
- AMA. —Ibon!
- DIRU. —Bits! Zetan zagoz?  
Ez zaituet ikusi nahi ez bata eta ez bestea. Kanpora biok.
- AMA. —Zetan zabiltz, Ibon? Zelako hartu emonak darabiltzuz?
- DIRU. —Gaixo nagoala dakizuelako zatozte. Danok. Danok. Ez dozue lortuko. Hilgo nazala uste dozue. Ez! Ez! Biziko naz! Indartuko naz danok makurtu eraziteko haiña.
- AMA. —Baretu zaitetz. Nik ez dot holakorik burutu!
- DIRU. —Kanpora danok. Danok!
- LORE. —Ba dakizu kanpoan gose dagoan umetxo bat dagoala.
- DIRU. —Isil zaite.
- LORE. —Ezin nei. Ez dot nire ardurarik. Bakarrik baintz...
- AMA. —Andre, edonor izan da be...
- LORE. —Ez naz isilduko. Nire eskubideak daukadaz.

Nik euki ez da be, zaindu behar dodanak emonak.

DIRU. — Nok emonak?

LORE. — Ez agertu eta ez egin ez jakinik. Ondo dakizu. Ezin nai isildu. Jausi eragin ninduzun.

DIRU. — Bi ez dira nahastuten batek nahi ezik.

AMA. —Ez egizu gauza zatarrrik agertu.

LORE. — Indarrez makurtu ninduzun. Ba dakizu. Ba dakizu.

DIRU. —Isil!

AMA. —Errudun nor dan, askotan...

LORE. —Nik ba dakit nor zan, eta ama legez jakiteko eran esan nei, hala behar eskero. Behartsu izan arren ez nintzan inori salduko.

AMA. —Danok gara emeak.

LORE. — Ama zara? Benetan?

AMA. —Zuek andra gazteak hainako birtutez.

LORE. —Eta zure amatasunak besten amatasunaren eskubideak ezagutu eragin nahi ez?

DIRU. —Zu zabiltz itsu, zu, ta okerrez.

LORE. —Ezin hori esan.

Okerrez...! Hemen ni naz zapo ta besteak bildots. Eta negarrez kalean dagoana zer da?

AMA. — Norbere bekatuak norberak zuritu behar.

LORE. —Andre! Bati osorik eskintzeko amets sarri egin neban, behar-ba-da zuk be egingo zenuan antzera.

AMA. —Eta jakina. Tartean nire semea azeri. Ez?

LORE. — Eta hala ba zan?

Nire ametsak galdu ziran. Nigaz etsi eban. Etorri zan semearen maitasunak beretzakotu nindualako.

- DIRU. —Nire ondasunekaz jaubetu nahi izan dozu, aitzaki horregaz. Nok daki seme hori nirea zanik?
- LORE. —Gizon bat bakarra izentatuko bazendu eta erosi nahi zenduanaren bila ibili ziñan... Zegaitik zure ez ba zan?
- DIRU. —Ez dakit zer diñozun. Umearen aitzakiz guzur asko asmaten dozuez emakumeak erruki bila.
- LORE. —Guzurta ni...! Zegaitik pastillak bialdu zeus-tazan, nire lotsa zaindu eragiteko aitzakiz?
- DIRU. —Etxean euki zinduzalako. Maitasunez, zu ondo ikustearren, geroari begira.
- LORE. —Maitasunez!
- AMA. —Askotan okerrik pentsatu barik, norbere eza-guna ondo ikustearren.
- LORE. —Nire lotsaren gain estimatu izan dot erruga-bekoen bizitza. Hemengo lizunkeria ikusita, bizitza barrira etorri leikianaren itxaropenez. Etorriko da zoritxarrekoen aldia! Etorriko da pobre ta zapalduen eguna!
- DIRU. —Gaurkoan bizitza be kontuak. Eta hemen ezin zeinke. Nire lepotik ez.
- AMA. —Danok be ba dogu honetan ahalegin beharra.
- LORE. —Ez daukat hemen biziteko garrik. Ez daukat iñoren lepotik bizi nahi izateko guraririk. Baina errurik ez daukana salbatu behar dot. Eta nik baino lehenago, zuk.
- DIRU. —Nik ez. Zuk, zuk.
- LORE. —Nik erruren bat euki neikian. Ez indarpean lotu ninduzunean. Ez dakit noiz. Euki neikian, egiz. Emakumeen irribarre bat be errubidea izan lei askotan.

- AMA. — Bai horixe.
- LORE. —Gure gaztetasuna be erru bidea izan lei.
- AMA. — Harrokeriz, askotan.
- LORE. — Baina besteak ez. Besteak ez dau errurik. Aitatasuna ematera ukatu zinanari, nik ezin neikian amatasunik ukatu. Ezin neikian, zuk hala nahi izanda be.
- DIRU. —Ez nagizu zurbildu. Itxi, bakean itxi.
- LORE. — Bakean ez. Arra daroazu barruan. Arra eroango dozu.
- AMA. —Zuk sartu nahi detsazun zitalkeriko arra?
- LORE. —Kobarde bai izan da... Eta zu be bai. Zu be bai. Semearen maitakeriz zure gizona, zure senarra salbaten jakin ez zendualako, orain-txe zoritxarreko andre baztertu baten esku-bidea aldeztuten jakin ez dozun antzera.
- AMA. —Txotxiña zara, andre. Zer dakizu zuk nire iza-tegaz?
- LORE. —Nik ezagutu eta zaindu neban zure gizona azkenetan. Nik ume nintzala zabaldu neutsan gure etxeko atea, katez lotuta, gartzelatik ihes eginda gurera etorri zanean.
- AMA. — Guzurti!
- DIRU. — Asmakizunak!
- LORE. —Eskutatu egin zinan, bildurrez, gizona hil arretetik. Eta zu (*Diruri*) lotsatu, edo hortik diñoana egia bada, eta danok dakigu zerbait, zabarkerian poztu, aberetu.
- DIRU. —Nun zagoz eskututa, Bits?
- LORE. —Zure bititzea gehiegi garraztuteko agertuko da, agertzen ba da.
- DIRU. —Jagiko naz.

- LORE. —Ez daukazu indarrik. Eta nik, goseti be, bo ta zeinkidaz. Heriotzaren musua harturik nago. Ezin, ziñei, amatu banun be, nire musurik hartu zenduanik esan. Onez eskatu nahi izan deutsudana, legez, kenduko deutsut nahi dodanean. (*Deyez*) Bits, Bits.
- BITS. —Nire premiñan?
- LORE. —Nor izan zan gure etxean, katez lotuta, gartzelatik, iheska, hartu genduna?
- BITS. —.....
- LORE. —Esan, esan...
- DIRU. —Jakin behar, esateko?
- BITS. — Bai, Unai.
- AMA. — Ezin lei.
- DIRU. —Zelako ipuiña asmatu dozue?
- LORE. —Nor izan zan hile bi gaixo eta ezkutuan egin ondoren, Urkiko sagastian enterratu zenduena nire aitak eta zuk?
- BITS. — Benetan: Unai.
- DIRU. —Nundik asmatu eta atara dozu zapokeria hori, Bits? Maitasun barrian bila zabiitz?
- AMA. —Jakingo neban, hala balitz.
- LORE. —Jakin dozu eta ikusi ziñei, nahi dozunean.
- AMA. —Ezin lei, andre. Ez zagoz ondo.
- LORE. —Ez nagola ondo... Urkiko sagastian, harri luze baten azpian, hantxe dago, eta hantxe dago, baita, kutxa batean, berak agindua.
- DIRU. —Zegaitik han enterratu?
- LORE. —Gerra denboran ziran eta ba ekian guregan etor leikian okerrak, zeu beroen ziñala.
- AMA. —Ezin lei, ezin lei. Bere bila ibili nintzan. Bere bila ibili nintzan iheska, semea laga ta.

LORE. —Egin hitz, hitz egin, Bits.

BITS. — Eskatu.

LORE. — Gure atean be jo zenduan egia da. Eta nire aitak, zurearen gartzelako kateak erakutsiz, esan eutsun ihes egin ebala, betiko ihes egin ebala. Guzurra da hori be?

BITS. — Egia da.

AMA. — Hori bai.

LORE. —Eta zuk ez zenduan hartu. Ez zenduan ulertu. Eta bila urten zenduan, bila. Baina berandu.

AMA. —Nik ezin nei izentatu, sinistu olakorik. Ezin nei sinistu zuen etxean hil zanik.

DIRU. —Ametsetan be ezin lei hori burutu, zoratuta ezik.

LORE. —Nireak hil ziran. Bakarrik geratu nintzan. Eta zugana etorri, beti zure aitak agindu legez bere izatea ezkutatuz.

Ez neban sekula esango gizon haundiak hain txiki diranik. Ez neban sekula esango perfumez betetako gizonak hain ustel diranik.

DIRU. — Isil zaitetz, mesedez!

LORE. — Nire semea eskutatea pentsatu neban une baten, eta ni garbi legez agertu. Nire semea legatea pentsatu neban. Goseak erabili nituan horretan. Baina herriak jakin daianian, uste dot jakingo dauela barkatzen. Orain arte ezkutuan euki dot eta gosez, ibili naz, iñon agertzeko bildurrez. Baina nire lotsaz, nirea ez dan lotsaz, urratuko dot eta nire bildurra uxatu.

DIRU. — Ez dira ausartuko sinistuten. Satorkeri bat dala jakingo dabe.

- AMA. —Ezkutuko aitatasunik iñok ezin lei sinistu, aitatzakoak agertu ezik.
- DIRU. —Eta ez dozu lortuko nirerik. Ez dozu lortuko. Ez deustue sinistuko.
- LORE. —Sinistuko deuste. Ni ez naz agertuko ezkutu. Gizonen batek maitatzen ba nau... jakingo dau nire semearen aita zein dan.
- BITS. — Bai.
- LORE. —Testígu izan zaite. *[Diru'ri]* Ba zenkian zure ama be bekatu bardinean jausi zala?
- DIRU. •—Kanpora! Ez egizu guzur barririk zabaldu. Ahal ba neu, tatarrez, tatarrez...
- AMA. —Zetan zatoz, emakume? Guzurti, zikin!
- LORE. —Nor da ukatuko dauna?  
Eta ba zenkian, zure gizonak, ba ekiala seme au norena zan, nahiz eta zuk berari sekulan esan ez?
- AMA. — Holakorik ezin ziñei esan.
- LORE. —Eta barkatu egin eutsuia...
- AMA. —Isil! Isil! Barru txarreko piztia!
- LORE. —Eta aitatasuna eskeini eutsula beste baten izen ona ezkutatzearren?
- AMA. —Ez etsi iñor zu lako zikin.
- LORE. —Eta azkenian, zuek biok salduta be, batak bildurraz eta besteak azpikeriaz biok, biok beraz lotsatu be...
- AMA. —Nok esan deustu hori, nok?
- LORE. —Nok esan leikian, berak ezik? Eta azken orduan ezik, noiz esan leike senar batek, emazteari be, jakitun zala, sekula jakin erazi ez eutsan ezkutuko hori?

Noiz, hilteko zorian ezik? Agerbide gehiago nahi?

DIRU. —Ixil behin! Hil gura nazu. Hilko nazu. Ni hiltzen etorri zara. Nire gaixoa larrituten etorri zara!

LORE. —Nire semeak biziteko behar dauen nortasunaren biia etorri naz. Zoritxarrean bota gaituen emakumeak be ba dakigu gure gerra egiten, errurik ez daukenen alde. Zegaitik, bekatari dan gizarteak, bere miseriak ezkuta-teko, zorigaiztokoan kontra jaiki behar izaten dau, bere bekatua handituz?

DIRU. — *(Zutik jarriaz)* Ama...! Egia da benetan... egia da... ez dakidala norena naizen? Egia da? *(Burua makurtzen dau Amak. Diru sututena da. Atean igarriko da HERIO, mutiltxo bat eskuetan daroala. DIRU penaz, deika eta deika.)*

## IX

### LEHENGOKOAK eta HERIO

DIRU. — *(Deika)* Herio! Herio!

HERIO. — Deiez. Diru?

DIRU. —Eroan nagizu. Ez dautsut bildurrik. Zugaz nator. Eroan nagizu lotsari artetik.

HERIO. — Itxaron. Geroago. Gose'k bialdu deustan ume-txo hau eroan behar dot lehenago.

DIRU. —Ba nator. Itxaron eidazu. Eutsi! Eutsi!

HERIO. — itxarongo deustut geroago. Gizarteari zotin eragin behar deustat lehenago. Gizarteari itxartu behar dot. Gizarteari zotin eragin be-

- har deusat. Injustizietan sartuta dabilan gizarzarteari lotsa sartu behar deusat.
- DIRU. Gertu nago. Herio. Ezin nei hemen gelditu. Ezin nei. Ezin!
- HERIO Kobardeak ihes egin nahi izaten dabe mundutik prisaka. Begira Gosek, bere nortasuna erakutsi gurarik, bialdu deustan kutuntxo errugabea.
- LORE. *(Bere umetxoa daroala konturatuz, zoratuta legez, deika eta uluka.)*  
Txeru!  
Txeru!  
Neure Txeru!!!

01 ALA

## IRUGARREN ZATIA

*[Irudia: Mendiarte bat. Bidea]*

I

LORE bakarrik

*(Zoro antzera dabil. Mendietara deika, eran-tzuna nondik artukoj)*

- LORE. —Txeru! Txeruu!!
- Hementxe laga nahi izan zindudazan. Ez ote zinan biziko hala egin ba neu? Aberatsen bateg bilatuko zinduzan, eta hartu, eta loditu harrotasunez bederik, eta gizondu...  
Eta aberats ustelkeriak erakutsi aurretik, ni

agertuko nintzan, eta biok eíkartu, ama ni eta seme zu, mundu gaiztoaren okerren ordain, elkarri musu eta musu... Pobrien arnasa ei da maitasun gartsu!

*(Barrero deika)* Txeru! Txeru!

Nora ekarri ete zaitut-guri guritxu Gose'ren zitalkeriaz. Heriotze galduk? Nun laga ete zaitu, ostu eta kitu, hartu eta siku. Heriotze-ren amorruk? Nun? Nun, ezin bazaitut bilatu iñun?

*(Barrero deika)*

Txeru! Txeruuu!

Lotsatu egin ete zara, lotsatu, bizia biztu eutsun gizarte lizunagaz, edo haserretu aita-tasuna ukatu eutzun gizon ustelagaz, edo etsi, etsi eta ezetsi, zure esnearen bularrak gosez sikatu zituen mundu gor eta esku lotuagaz, edo damutu, damutu, zer esanen lotsetan galdu zan zure ama onagaz?

*(Deika)* Txeru! Txeru!

Aingeru tokian sartu ete zaitu, sartu zu.

mundu gaiztoan fruitu

Heriotze madarikatuk?

Aingeru baino lehen

nirekin nahi zindudazan,

pobre eta goseti,

nirekin beti,

gizonak behar bait dira munduaren bide lotsetan,

bizi barrien egarri;

gizon garbiak behar

andrak amatuteko,

ama garbien iturri.

Nun, Txeru? Nun zu?  
Nun, nire ifernu  
eta nire zeru?

### LORE eta BITS

- BITS. — (*Agertuaz*) Lore!  
LORE. — Bits!  
      ikusi dozu?  
BITS. — Zein?  
LORE. — Txeru!  
BITS. — Zeinen Txeru?  
LORE. — Nire! Nire! Ez besteren! Nire!  
BITS. — Zure eta gure.  
LORE. — Bits!  
BITS. — Amets egin dot.  
LORE. — Ezin nei ametsez bizi.  
BITS. — Bide barriak bílatuteko amets egin behar da.  
LORE. — Bide barriak, non?  
BITS. — Bide zaharrak lagateko amets egin behar  
      dan legez.  
LORE. — Bits! Bide zaharrak edonun.  
BITS. — Haizeari musuka ikusi zaitut ametsetan.  
LORE. — Nire Txeru bilatu nahirik ametsetan.  
BITS. — Errekondoan ikusi zaitut ur garbia erabilten  
LORE. — Nire Txeruren irudia ikusten neban uretan  
      bustiten.  
BITS. — Lorak zabaltzen ikusi zaitut, loren lekak za-  
      baltzen.

- LORE. — Loren usainetan Txeruren arnasa izan dot hartzen.
- BITS. —Eta nik, Lore, zu ikusi zaitut, zu haizetan, uretan eta loretan.
- LORE. — Bits!
- BITS. — Lore!
- LORE. — Ezin, Bits.
- BITS. —Zu ikusi zaitut ameslari.
- LORE. — Ez zaitez zirikalari.
- BITS. —Zu ikusi zaitut bidean.
- LORE. — Bidean?
- BITS. —Nire bidean. Nik nahi dodan bidean.
- LORE. — Ezin!
- BITS. —Gizarte lizunari orroka.
- LORE. — *(Automata bat lez erantzuten)* Orroka!
- BITS. •—Gizarte Guzurtiari txistuka.
- LARE. — Txistuka.
- BITS. •—Gizarte ustelari harrika.
- LORE. — Harrika.
- BITS. —Munduan bizi nahirik, zotinka, lotsak bota ezinez, ezkutuka, amatasuna zaindu nahirik eteten, zorutzen...
- LORE. — Bits! Zetan zatoz?
- BITS. — Amets egin dot.  
Konzientzia deika sentidu dot.
- LORE. — Non da konzientzia? Non?
- BITS. —Gure bidean, zigur, gure bidean.
- LORE. — Ametsak.
- BITS. —Gure bidea bion aurrean ikusi dot.
- LORE. —Gure bidea... Txerurena izango ete?

- BITS. —Txeruren anaien bidea...
- LORE. —Gose'k bilatuko gaitu eta Heriotzek eten.
- BITS. — Gose mendetuko dogu eta Heriotzek agurtuko gaitu, gure udaberria amaitu artean.  
*(Geldiro geldiro bidean urruntzen hasiko dira eta Lore'k arantza baten minex ikututa)*
- LORE. —Oi! Arantza bat! Txerurena ete?
- BITS. — Lorerik ederrenak arantza artean loratzen dira.
- LORE. — Zurikerietan?
- BITS. —Ez begiratu atzera. Goazen, goazen gure bidean.
- LORE. — Baina, Bits, ni...
- BITS. —Zure bekatu, Lore, ez da nesken bekatu izan. Aurrera gure bidean!  
*(Geldiro geldiro urruduten joango dira, lainopean galdu arte).*

A M A Y A



## Mendu zaharrak

*Irudi egileak:*

(Agertu ala)

ASEL. —65 urte ingurutako gizon egina.

UNAX. — 25 urte ingurutakoa. Bere semea. GaurKo erara, bizarduna.

INGE. —Urte bardiñetako neskatila.

IRMA. —Urte bardiñetako neskatila.

OIER. —Mutil gaztea. Bizar handíduna.

DEÑA. — Neskamea. 26 urte inguru.

(Irma eta Oier, lehenengo ekitaldian itxurak eta abotsak aldatuta agertuko dira, bigarreanean jator agertzeko.)

*Irudiak:*

Lehenengo ekitaldian: Etxe eder batetako liburu-gela.  
Bigarren zatian: Etxe berberaren atarian.

*Giroa:* Gure egunetan.

## I EKITALDIA

### I Irudia

#### ASEL eta UNAX

- ASEL. —Ez egidazu gaurkorik aitatu.
- UNAX. — Baiña gaur bizi bear gara. Gaur. Eta gaurko legez bizi bear, bizi, istorian amets egin barik.
- ASEL. —Gu be bizi giñan.
- UNAX. — Hori. Ziñen.
- ASEL. —Giñan, bai. Eta sekula ez genduan pentsatu gaurko erako... bizikera barregarri edo larri-rik. Ametsik be ez genduan holakorik.
- UNAX. — Zer da gaur barregarri edo larri?
- ASEL. —Aitatu be ez egin, aitatu be. Dana. Dana. Bizikera, jazkera, ibilkera... Begiratzea baiño ez dago. Praka motz horreik... Eta aurpegiko bizar zikinak dindilizka.
- UNAX. — Betikora goaz.
- ASEL. — Eta aurpegikoak gitxienak dira. Izterretako ule zaharrak be erakusten, mundua...
- UNAX. — Noizko mundua?
- ASEL. — Mundu dana, zentzundun mundu guztia nazkatuten.
- (Irriz diardu Unax'ek)*
- Ez egizu burlarik egin eta irri faltsurik be ez.
- UNAX. — Gaur, nazkagarri barik, atsegin da ori. Giroko. Ez al zan nazkagarri, bestera, zure gurasoen bibote luze metro erdiko a?
- ASEL. — Ba, ba, ba... Ez bardindu.
- UNAX. — Eta gaurkoak lizun ba dira, ez aal da egia esaten dana, eskua emotea be bekatu zan garai

santu haretan, elkarri ukitu barik kili-kiliak,  
koskillak egiteko asmatu ebela moda ori?

ASEL. — Isil zakidaz.

Nongo herria jasoko dozue zuek? Nongo?

UNAX. — Herria han eta hemen dagoalakoan? Gu gara,  
gu.

ASEL. •—Ixo, ixo, ixo...

UNAX. — Bai, aita. Herria ez dira mendiak eta itsasoa,  
ez dira errekek eta aranak. Gu baino. Gure  
izatea, gure kutsua, gure nortasuna. Giro ba-  
koitzean bere giroko. Horrela da.

ASEL. — Baiña, mutil. Begiratu.

Ekarri egizu, nahi ba dozu, drogaz beteta bi-  
zi dan ipi horreitako bat.

UNAX.—Hippi esaten da, aita.

ASEL. — Dana dala.

Ekarri egizu beatle orreitako bat.

UNAX.—Beathlee esaten da.

ASEL. — Ez deustazu ulertu?

Ekarri egizu, gura ba dozu... Edozein. Beste  
bat. Ple-be bat.

UNAX.—Play-boy.

ASEL. — Goi-boi bat...

UNAX. — Go-go-boy.

ASEL. —Besterik zer? Izenari begira zagoz? Izenaren  
zeatz eta doitasunari?

Ba, ekarri egizu kakanarru bat. Hori. Kakanar-  
ru esaten da, ez?

UNAX. — Ba dozuez euskaldun zaharrok be izen itsu-  
siak.

ASEL. —Itsusiak? Zatarrak? Egokiak. Hori. Egokiak.

Izenari garrantzia emon. Eta egiteak? Izatea?

Dana dala. Ekarri egizu kakanarru horreitako bat eta berakin deitu beste gure herriko arlo- te bati. Jarri elkarren ondoan. Deitu edozeini. Edozeini. Igarriko leuke nor dan gure herriko eta nor ez?

UNAX. — Baina, aita...

ASEL. — Laga egidazu jarraitzen.

UNAX. — Ba dakit zer esatera zoazen.

ASEL. — Zer?

UNAX. — Ba, zure esakeran, kakanarru bi bilatuko li- tuzkeela.

ASEL. — Konturatu zara? Besterik ezin leike, ez?

UNAX. — Laga egidazu orain niri zerbait esaten.

ASEL. — Zer esan zifnei, zer?

UNAX. — Ba nik, hain atsegiñez dabilzun izen zatar hori lagata, eta berez, —zaharroi ez deutsue destaintsu bat baino urtengo-ta—, guri gaz- teoi berez, berez, izen egoki berezi bat urten edo sortu arte, konpleju bako gazte bi dei- tuta...

ASEL. — Konpleju bako gazte bi? Ixo, íxo..., mesedez! Zer da konplejua, zer? Edo obeto esanda, zer da... Hori. Mihi puntan daukat izena, ezin ur- tenda. Esate baterako... Nahastu baino ez gaituzue egiten, izan be, zuen erderakadekin.

UNAX. — Egon. Begiratuko dot hiztegian konplejoa ze- lan esaten dan. «Konplejoa» esateko konple- joa daukazula ba dakit-eta.

Horra euskaldun zaharren bekatu bat. Kon- plejoa.

ASEL. — Guk zaharrok bekatu asko. Eta non dira gaz- teen birtuteak?

UNAX.— *(Irakurriz, liburutegitik hartutako hiztegi ba-*

- tetatik*). Hara, hemen dago: Complejo. Múltiple: batzun, askotasun... Complicado=...nahasi, nahastu, nahaspildu, bihur...
- ASEL. —Euskeraz pentsatuz gero ez dago hiztegi beharrik. Esan edozer: ingera, edo zalantza.
- UNAX. —Zalantza, dudia da. Nik, esanak esan, konplejoa erabilliko dot.
- ASEL. —Jakina, zuek zuenetik ez dozue urtengo. Ba dakit. Esakera ez dakizu? «Bakoitza bere zoroak bizi». Eta nahi ba dozu, bestea: «Bakoi-tzak bere opilari su». Hori. Esakerak lako eza-gutzaile eta salataririk ez dago.
- UNAX. —Behar ba da zuk atseginago zenduke «Roma locuta causa finita».
- ASEL. —Zer da hori?
- UNAX. —Asko da zuen frailekerian hainbeste latin ez jakitea. Eta danen gainetik, «San Pedro zaharraren burua, gardamuak zulatua».
- ASEL. —Hori be bai? Zimeldua nagoala esaten zatoz-kidaz? Eta nirea, edo zuk gurago zendukeena, gurea joan dala? Zereginik ez dodala edo ez dogula esaten? Nongo urak daroazuz? Nireak?
- UNAX. —Ez dakit. Baina zure esakeren piloan dago beste hau: «Apaiza eta odolestea, egiten diran lakoxeak izaten dira».
- ASEL. —Halaxe da, bai, halaxe. Eta zegaitik gogoratu ez era berean, «astokumearena jazoten yakoe askori: handiago eta itsusiago»?

## II

### ASEL, UNAX eta INGE

- INGE. — (*Sartuaz, gangarki*)  
Bon, bon, bon, bon! Pentsaten genduana.
- ASEL. — Arratsaldeon.
- INGE. — Esan beharrik ez dago. Hori jakiña da.
- ASEL. •—Jakiña eta premiña.
- INGE. — Bat ez da gogoratzen ezegaz eta ikusi be ez.  
Barkatu. Barkatu ez, jakiña.
- ASEL. —A, hori ez, jakina.
- INGE. —Kapitalisten mentalidadea dagoan artean, horretan ibiliko gara. Formei begira. Kopletan.
- ASEL. —Gauza batzutarako halaxe, kopletan.
- INGE. —Eta kopletan joango dira denborak. Eta kopletan ibili beharko gara kalean, eta...
- UNAX. —Norekin hitz egin dozu?
- INGE. —Norekin? Zeinekin hitz egin behar neban? Koplari aspergarri eta koipetsu harekin.
- UNAX. —Ezagutzen dozu ondo.
- INGE. —Luze eta luze eta luze... Gauza bati astinaldi bardina, hamar eta hogeï bidarrez. Haren hariaren karrete! Ba, ba! Ezer esan barik, jakina. Beretik ez urteteko.
- UNAX. —Edo okerrago. Garantia bat emon ezik, inoiz ez ehi dau libururik atarako irarkolatik, inprentatik. Diru batzaile barik, diru galtzaile ehi dira guk atara nahi doguzan liburuak. Herriaren ondamendi! Gurea da errua, gurea, kapitalistekin batzen garealako.
- UNAX. —Eta zer azkenean?

- INGE —Erdi erdia oindixek dirutan emoteko. Eta beste erdia, liburuak saldu ala, baina beti be, ordaindu bakoen laurden bat gehien dala gure eskuetan utzirik. Argituko dozu eta salbatu horrekin herria! Piztia horrekin!
- UNAX. —Gure herria! Ba! Kapitalaren paradisoa! Ba dakigu. Zetan ernegatu eta sututu?
- ASEL. —Ez nekian herria argitu nairik zenbiltzenik. Modetako errebistaren bat sortu ahal dozue?
- INGE. —Modak! Modetako gagoz! Hori. Denbora pasaparrietarako! Problemarik ez ba genduke legez beste gauzatan!
- ASEL. —Ordurik luzeenak modei eskeini ondoren, jakina. Gaur problemarik handiena bizarra dotoretzen eta berak horitzen ez dago ba? Problema! Je! Zer dakizue zuek buru-austeen barri?
- UNAX.—Liburutan sartu gara, liburu ataratzen eta saltzen, eta hor gabiltz.
- ASEL. —Liburutan?
- INGE. —Zegaitik ez?
- ASEL. —Poesiak egiten behar ba da?
- INGE. —Komeni danetan.
- ASEL. —Nazkatua nago poetekin. Lau hitz gozo, suspense bat, eta... egin zuk lana, eta eurak libre jana.
- INGE. —Herri ekintzako era bat da hori.
- ASEL. —Hori ez ahal da denbora pasagarri? Ez ahal da kopletan ibiltzea?
- LINAX.—Kopla bako poetak ez lirakez herri poetak.
- ASEL. —Nok esan eban hori?
- UNAX.—Besteak esan ez ebenik ezin ahal neike nik esan? Hori nire «definizioa» da.

- ASEL. —Ba nekian kaskar argia zenduana.
- UNAX.— Zure sobrantekin, zure propinekin biribildua.  
Horren bila zenbiltzen?
- INGE. —Poesiak preminazko dira, eta besteak be bai.  
Baina guk sakonago jo nahi dogu.
- UNAX. — Sakonago eta pratikoago.
- INGE. —Gure mendeko gaztediaren zeregina da gure herriari konbentu usaina kentzea.
- ASEL. —Eta bekaiztien satorkeria, edo buru gogor eta bihotz errien setakeria izan lei horrela uste izatea.
- INGE. —Lotsatu egiten gara, lo-tsa-tu, hori, lo-tsa-tu, lau fraile mistiko edo monja txotxin batzuen soinura herri osoa dantzan ikustea.
- ASEL. —Milen artean lau mistiko eta lau txotxin konbentuetan legez egongo dira beste edonon.
- INGE. —Bear ba da, aurrean dagoala bat esan nahiko dau aitak.
- UNAX.— Esan ez deutsunik, ez zurezat hartu.
- ASEL. — Ez ahaztu, mundu osoan jakina dala, Euskal-Herria Auñemenditan dantzan diardun herria dala.
- INGE. — Eta zer? Umekeriak!
- ASEL. — Horrek behintzat entzutea emon deutso gure herriari.
- INGE. —Haizeak! Errekaizeak! Eta horrela bizi da gure herria. Haize usteletan. Lotan. R. I. P. handi bat mendien gailurretan dabela.
- ASEL. —Barkatu. Nik oraindik ikusmenik ez dot galdu. Eta nik kanposantuetan ez dot R. I. P. sekula ipini, mendi gailurretan gitxiago, E. D. baino. E. D., jakin? Hemen dago. Hori, hemen dago.

- INGE. —Dago. Lo behar ba da.
- ASEL. —Noizbaitetan biziteko. Nik, behar ba da zaha rren ametsa izango dalako, biztuera barri ba ten sinistuten dodaiako. Hemen dago. Dago.

*(Barruko gelara doa)*

I II

UNAX eta ÍNGE

- INGE. —Gogor dago zaharra.
- UNAX. —Berean.
- INGE. —Zahar honekin ez dago ezer egiterik.
- UNAX. —Batzuetan ez.
- INGE. —Ez dogu ezer lortuko gure asmoetarako eta gure ekintzarako?
- UNAX. —Ez bere jakinean.
- INGE. —Kobardeegi bilatzen zaitut, Unax.
- UNAX. —Bere hurik ez dozu zuk soinean, Inge.
- INGE. —Konturatzen naiz.
- UNAX. —Ordua zan.
- INGE. —Eta arrazoia emoten deusazu berari?
- UNAX. —Batzuetan bai.
- INGE. —Konturatzen naiz bere bildurrez bizi zareala.
- UNAX. —Errespetuz.
- INGE. —Konturatzen naiz gure gauzarik ez dozuala oraindik agertu.
- UNAX. —Agertu barik igarri egiten dau harek.
- INGE. —Konturatzen naz ez dozula oraindik etxean problemarik atara eta sortu, eta jakina, gure

problemak, oraindik, zuk eta nik bakarrik bi-  
zi doguzala, eta ez berak eta guk.

Konturutzen naiz, oraindik, zu eta aitaren ar-  
tean, azaleko hitzak eta haserreak baino ez  
dirala. Eta ezer egingo ba dogu, ezer lortu  
nahi ba dogu, kalean kaleko eta etxean etxe-  
ko, haserratu egin beharko gara. Jakin hori.  
Oindixek diñotzut. Konponketa bat, zerbaite-  
tan konformismoa agertzea da. Eta hori, guk,  
gazteok, gure eskubideak lagatea da.

Ez dozu erantzunik?

UNAX. — Zeri buruz diarduzu? Herri-miñak eraginda ala  
gure izateak bultzatuta?

INGE. — Ez zara hain buru motz ez igarteko.

UNAX. — Zer esan deusue irarkolan, inprentan?

INGE. — Ez orain haririk eten. Goazen gurera.

UNAX. — Gurea ez ahal da zabalkundeari buruz hartu  
dogun konpromisoa? Ez ahal gabiltz gure he-  
rriak sekula bere hizkuntzan irakurri ez di-  
tuan liburuak berari sartu eta irentsi eragin  
nahirik?

INGE. — Baina orain...

UNAX. — Kalerako dozun garrez, lagun artean agertzen  
dozun adorez eta kezka hitz egin daigun bion  
artean.

INGE. — Bion artean, gurekiko, guri-guri dagokiguzar-  
nez, beste problema zitalagoak doguz. Ba da-  
ki aitak etxe bat osatu nahi dogunik?

UNAX. — Bitarteko asko dago oraindik erabagiteko.

INGE. — Ba daki nahi eta ez etxe bat behar dogunik?

UNAX. — Nahi eta ezko ori... Ezkontzarik erabagi dogu?

INGE. — Hirugarren hilabetean datorrenari, ezkontzeko  
paperak eta baimenak eta itxurak eta azal-

keriak eta bedeinkazinoak erakutsi behar ahal deusaguz?

Erantzun. Ez mututu. Ba daki aitak?

UNAX.— Garai egoki bat bilatu behar da horretarako.

INGE. — Noiz?

UNAX.—Ahal danean.

INGE. — Noiz da ahal hori?

UNAX.— Bere garaiean.

INGE. —Norbere problemak agertzeko, zirt edo zart, hotz hotzean, ezeri begiratu barik jardun behar da.

UNAX.—Dana eteteko be bai.

INGE. —Ez naiz zure iritziko. Arpegi emon behar da. Behin beingoz, bete-betean emon eta kito.

UNAX.— Eta haserretu.

INGE. — Behar ba da, bai.

UNAX.— Eta kalean bizi.

INGE. —Zeuk be ez dozu hori pentsatuko.

UNAX.— Zeuk naroazu horrela pentsatera.

INGE. — Etxearen eskubidea dogu.

UNAX.—Aitaren kontura?

INGE. —Nik ez dakit nork ordainduta. Niretzat zeuk.

UNAX.—Nondik?

INGE. —Ostuta ba da be, ahal danetik lortuta. Eta aitak ordainduta izan da be, hainbeste zor izango deus zuri edo zuk dorozun bere odolari. Eta niregan dagoenari, datorrenari.

UNAX.— Ez zaitetz martiri agertu, denborak baino lehen.

INGE. —Eta zuk adorea hartu egizu, berandu baino lehen, naiz eta ez hartu eragitea nahi ez ba dozu.

## IV

UNAX, INGE, OIER eta IRMA

*(OIER eta IRMA bat batean sartzen dira, arpegiak estalduta, urduri, pistolak eskuetan agirian dakarrezala.)*

IRMA. —Jaso eskuak!

OIER. —Gora eskuak eta hormara, txitik egin barik.

UNAX. —Zer nahi dozue?

INGE. —Zeren bila zatoze?

OIER. —Gora eskuak eta hitzik ez.

IRMA. —Eta urreratu hormara eta hormari begira geldi egon. Bizkor. Bizkor! Bigarren oharrik ez dogu egingo, entzun?

UNAX. —Etxe honetan ez dago ezer. Oker zatoze.

OIER. —Ori gure kontua da.

Hormetara begira gelditzeko ez dozue entzun? Atzera begiratzen dabenak kontuan euki daiala gehiago argirik ez dabela ikusiko.

*(IRMA kajoiak arakatzen hasten da. OIER besteak zainduten).*

OIER. —Etxeko zarie, ez?

INGE. —Etxekoak be ez dakie hemen etxeko diran ala ez.

OIER. —Dirua non dagon jakingo dozue.

Erantzun. Non dago dirua? Bat batean erantzun.

*(UNAX'i pistola buru atzean ipiniz)*

Honek ez dau birritan itanduten. Non dago dirua?

UNAX. —Hemen ez.

- OIER. —Esan non. Bizkor. Denbora galtzeko ez gagoz.
- INGE. —Emengo gauzak batek bakarrik dakiz. Etxeko zaharrak. Haretzek bakarrik.
- OIER. —Eta beste geiagok.  
Esan, non dago?
- UNAX.— Erdiko ate hori zabaldu eta gela bi barrurago egon lei zerbait. Ez asko. Ez dakit merezi dauan horrela jarterik eta ibilterik. Gure zaharrak ez daki etxean dirurik gordeten.  
Zegaitik ez zoazte bankoetara?
- IRMA, —Bankoei eta kartzelei bildur deutsegu. Komeni danetan hareitara be joango gara.
- OIER. —Zehatzago esan egizu non dagon dirua. Zirt edo zart.
- UNAX.— Egon leikeena non egon leikeen, esan dot.
- OIER. — Non?
- UNAX.—Erdiko atetik joan-da.
- OIER, — Berreun mila peseta bankutik gaur bertan atara dozuzala ba dakigu.
- UNAX.— Nik baino gehiago dakizu hemengo barri. Zegaitik ez nazue bidean lapurtu, hala izanik, zuentzako errazago gertatu litekean-eta?
- OIER. — Non laga dozuz?
- UNAX.— Zíur ba zagoz eta hemen ez ba dagoz, barruan egongo dirala esan dot. Baina nik e? dakit ezer. Nik baino gehiago dakizue.
- OIER. —Tranpa zabaltzen?
- UNAX.— Zegaitik sinistu nahi ez?
- OIER. —Non dago zaharra?
- UNAX.— Esaten deusugu. Barruan.
- OIER. — Bakarrik?
- UNAX.—Ez dakit.

- OIER. — Beste aterik ba dauka etxeak?
- INGE. — Etxe batetan sartu orduko jakin behar zendu-  
ke orrenbeste.
- OIER. — Ixo.
- IRMA. — Armario hontako giltzak non dira?
- UNAX. — Armario horretako giltzak hartzeko, zaharrak  
etorri beharko dau.
- INGE. — Kontuz armarioagaz.
- IRMA. — Zegaitik?
- INGE. — Ez zaitezte arriskatu apurtzen.
- IRMA. — Zabaltzen ez ba da apurtuko da.
- INGE. — Zeuon onez, ez arriskatu.
- OIER. — Zer dala-ta?
- INGE. — Armario horretako atea indarrez zabaltzen  
hasen ba zarie, alarmako soinua entzungo da  
etxe barruan.
- OIER. — Dirua gordeten danaren ezaugarri.  
Zabaldu egizu, bizkor.
- IRMA. — Trintxarik ekarri dozu?
- OIER. — Ostiko batekin bota egizu.
- IRMA. — Baten orde z hogeit beharko lirake.  
*(Barriro kajoietan dabil, paperak eta beste  
barruko gauzak aidean jaurtiz. Bankuko taloi  
bat kendu eta gordeten igarriko da.)*
- UNAX. — Ez egizue ezer apurtu, mesedez, zuentzako  
probetxurik edo onik ez dozuela.
- IRMA. — Apurtzekotan zure kaskarra apurtuko gendu-  
ke hots baten.
- OIER. — Luze goaz. Ikusi dozu dana?  
Ausnartzen ba zara zoaz barrura. Honeik ez  
dabe zirkiñik egingo. Nire kontu.

- IRMA. —Zenbat atetara dagoala, esan dozue, zaharra?
- UNAX. —Zaharra nondik dabilen igarten ez da errez era honetan.
- IRMA. —Jakingo dozu laster, esan barik.
- OIER. —Kopla gitxi. Ez bururik erabili. Ez bihurtu. Esan. Zenbat atetara dago zaharraren gela? Beste iñor egon lei barruan? Esan. Esan! Denbora irabazi nahirik zabiltz<sup>7</sup>
- IRMA. —Pasaportea emon egiozu, gehiagoko begirapen barik.
- OIER. —Erantzunik ez ba dator...

## V Irudia

### LEHENGOAK eta DEÑA

*(Bat batean atea zabaldu eta DEÑA agertzen da.*

*Estutasuneko zizpuru handi bat egingo dau eta hitzik barik gelditu dana igarriko da bere agerbideetan, ondes bat egiteko eran. OIER eta IRMA zurbiltzen dira eta gero eta larriago ekingo dabe.)*

- IRMA. —Gora eskuak!
- OIER. —Gora eskuak, ez dozu entzun?, eta sartu arin eta hormara begira jarri besteen ondoan. Zuek geldi, lehen baino tinkoago.
- IRMA. —Zetan zagoz? Bizkor. Jaso eskuak. Sartu, sartu barrura.  
*DEÑA'k ezin dau ezer egin bere bat-bateko*

*estutasunean. Okertzen hasten da, noiz jau-siko. Eta halako batetan garrasi luze batek urteten deutsa, eta deika:)*

DEÑA. — Lapurrak! Lapurrak!

OIER. •—Isil! Zaratarik ez dagizun, horra! Andrea izan behar zenduan!

*(Tiro bat entzuten da. DEÑA bete-betean jausten da garrasi hotsean.)*

IRMA. —Geldi zuek! Zirkinik ez! Bardin jazotea nahi ez ba dozue, geldi!

*(IRMA eta OIER zurbilduta zer egin ez da-kiela igarriko dira.)*

OIER. —Ospa arin. Ez dozu ezer laga?

IRMA. —Ez dakit nora yausi yatan pistolea.

OIER. —Koldarti hori! Non? Laga egiozu. Goazen. Geldi zuek, geldi! Beste bat nahi dozue eta tes-tigu barik gelditu?

## VI Irudia

UNAX, INGE, DEÑA eta ASEL

*(Lapurrak urten orduko ASEL agertzen da atean. DEÑA lurrean ikusten, harriturik:)*

ASEL. —Zer gertatu da? Zetan zagoze?

*(DEÑA zirikatu eta erabiliz:)* Deña! Deña!  
Zer jazo yatzu? Esan! Hilda zagoz?

Zelako komediak egiten diarduzue hormara begira? Zetan zagoze laguntzen etorri barik? Zein izan da? Hitz egizue. Zetan zagoze hor?

UNAX. — *(Kezkati)* Joan dira?

- INGE. — Hil dabe?
- UNAX. — Arnasa ba dauka.
- ASEL. — Deña! Zer daukazu? Zauritu zaitue? Nun?
- INGE. — Ez da odolik igarten.
- UNAX. — Poliziara deitu bearko dogu lehenbailehen.
- ASEL. — Geldi. Ez aurreratu. Hemen nago erabagiak hartzeko. Zer gertatu da? Zegaitik ez dozue hitzik egiten?
- UNAX. — Lapur bi izan dira. Bi.  
Bizkor jokatu behar dogu. Gure erantzun beharra salbatu behar dogu. Ez gaitezen lo egon.
- ASEL. — Zelako lapurrak?
- UNAX. — Izkiudun bi sartu dira díru bila, itxura baten.
- ASEL. — Zetarako dozuez bizarrak, zetarako? Etxe baten tarterik ezin hartu, edonor izan da be, menperatzeko?
- INGE. — Zorionez, ez da inon zauririk igarten. Bizi da. Arnasa ba dauka. Sustoak botako eban, behar ba da.  
Butaka baten ipini daigun, zerbait nasaituteko. Nondik urten dogu guk? (*Hiruren artean butakara daroe*).
- ASEL. — (*Kezkati*) Deña! Itxartu lehenbailehen. Ez daukazu ezer. Entzun. Ez daukazu ezer.
- INGE. — Osagileren bati deitu daigun.
- UNAX. — Ni poliziara deitzera noa. Bizkor ibili gaitezen. Lehenengoetatik poliziara deitzea izango da egokien. Danok aidean erabiliko gaitue.
- ASEL. — Geldi, esan dot. Egin behar dana nik aginduko dot. Zentzunean jarri gaitezen lehenengoz.
- DEÑA. — (*Larri, konturatzen hasten dalarik*) Non zauritu nabe? Non? Zer daukat?

(*Jaikiaz, bildurraren menpean*) Bihotz bihoztzean sentidu dot halako min ikaragarri bat. Lapurrak izan dira. Neuk ikusi ahal izan dodaz. Lapur bi.

INGE. —Baretu zaite. Ez bildurtu. Nasaitu. Ez dozu minik agiri baten. Estutasunak eragiten deusuna da. Ezer igarten dozu?

DEÑA. —Laga nagizue. Benetan be ez daukat iñon odollik? (*Izerdi larritan, ondoeza txikia datorkiola*).

ASEL. —Nasaitu zaitez. Ez da gauza handirik gertatu. Odollik ez daukenak honeik dira.

Lapurrak egon dirala diñozue? (*Lurretik jasoz*) Pistola hau ikusten dozue? Ez zarie lotsatuten? Plastikoz egina da, umeena. Olgetako lapurrak kikilduten laga zarie?

INGE. —Nok daki olgetakoak ziran?

ASEL. —Koldartiak! Zuek gerrarik ez dozue igaro, jakina, kaletako oraingo puts eta olgetak ezik.

UNAX. —Ezin geinkean ezer egin.

INGE. —Hormaren kontra euki gaitue lehenengotatik, bete betean ezer egiteko betarik laga barik.

UNAX. —Lehen be esan dot eta poliziara deitu behar genduke. Ikusi dogu zer eroan daben, edo zer falta dan?

ASEL. —Hirugarrenean be ezetz esan beharra emon nahi deustazu? Ez gaitezen nahastu, bitarteko okerrik ez dan artean.

Paperak, paperak eta paperak. Besterik ez leukie erabiliko. Eta ez genduke ezer lortuko. Ondo zagoz, Deña? Honeik baino adoretzuago zara zu, balienteago.

(*Telefonoa entzuten da.*)

- UNAX. — Polizia izango da. Jakingo eben eta danok eurrez erabilliko gaitue. Ikusiko dozue.
- INGE. —Nik jakingo dot zer esan.
- ASEL. — Mesedez. Etxe honetako erantzun beharra oraindik nire gain dago. Holako gauza baten, gainera, nortasun gehiagoz.  
Nor da?
- Abots. — Bankutik. Hemen, bankutik.
- ASEL. —Bankutik? Zer? Asel naiz, bai, ni nago telefonoan.
- Abots.—Kontua gorritan jarri yatzula esateagaitik da.
- ASEL. —Nire kontua zenbaki gorritan? Noiztik?
- Abots. — Gaur emon dozun taloia ordaindu egin dogu zurekin daukagun uste ta konfiantzagaitik..
- ASEL. —Nik taloia emon dodala gaur?
- Abots. — Bizardun gazte batek kobratu dau oraintxe bertan. Zure taloia, bai. Zure izenpea garbi egoan. Horixegaitik emon deusagu, hain zuzen be, besterik gabean.
- ASEL. •—Nirea? Okerren bat ez dozue eukiko?
- Abots. — Benetan be ez dozu zeuk emon?
- ASEL. —Benetan.
- Abots.—Asel..., ba..., garbi dago. Ezpairik ez dago. Aurrean daukat. Zurea da. Zure taloia. K 27.235 zenbakia. Zurea da bai.  
Zerbait egitea nahi? Behar ba da oraindik...  
Esate baterako, poliziara deitu?
- ASEL. — Ez.
- Abots. — Diru asko da. Zerbait lortuko litzake arin ibiliz gero.
- ASEL. — Ez.
- Abots. — Hirureun mila peseta dira.

ASEL. — *(Etsiaz)* Dana dala, eskerrak zuen konfiantzari. Ahaleginduko naz, biar edo etzi kontua bardintzen. Eskerrak. Agur.

*(Telefonoa lagata, erdi negarrez dagola igarriko yako. Isilik, unetxo baten. Elkarri begira hitzik asmatu ezinik...)*

ASEL. — Bizi guztian maite izan dodaz premiñadunak, ezeukiak, pobreak; maite izan dodaz jazartuak, minduak; maite izan dodaz idealistak be, nik be, nire gaztearoan, amets egiten nebalako, premiñetan aurkitu nintzalako, gauza askoren eta bizikera askoren errebeldiz odolak garraztutzen igarri nitulako.

UNAX. — Zure esakeretan zerbait salatu nahi dozula igarten yatzu.

ASEL. — Nik ez dakit hemen zer dagoan, Unax. Bihozkada bat behar ba da.

UNAX. — Zegaitik ez dozu nahi poliziara deitu?

ASEL. — Unax, oraindik asko ikasi beharrean zara. Zer esan dozu lehen, «San Pedro zaharraren burua gardamuak zulatua»?

Jakizue nik, oraindik, kaskarra argi dodala. Erakutsiko deutsuet zelan jokatu.

Odolak, su barik be írakiten dauala jakin egizue.

01 ALA

## BIGARREN EKITALDIA

### I IRUDIA

#### ASEL eta DEÑA

*(Hautsak kentzen eta egalak txukuntzen diartu DEÑA'k. ASEL, liburu bat eskuetan daukala, jezarrita.)*

ASEL. •—Bildurak bota behar zendukez.

DEÑA.—Ezin dot. Gizon bat ikusi eta bildurtu egiten naiz. Ate bat zabaltzen igarri eta burutik beherako zirriztadak jotzen nau.

ASEL. — Deña ona!

DEÑA. — Deña ona ez. Deña gaixoa. Orixe bai. Deña gaixoa.

Nik nire buruari igarri deusat... Ez dakit zer esan. Aldatu egin naizela, koldartu, kokolotu. Ez daukat indarririk eta ez daukat ezetarako gogorik be.

ASEL. —Dan dana ahaztu, jostatu, ibili.

DEÑA. — Esatea erraza da.

Ezin deusat nire buruari ezetarako taxurik emon. Ezin indarririk sartu.

Beteta legez. Alaxe.

ASEL. — Ez dozu esan nahiko gauza barririk daukazu-nik?

DEÑA. •—Zelako gauza barri?

ASEL. —Ez arduratu. Ez txarrera jo. Esakera bat izan da.

DEÑA. — Esakera...

ASEL. —Eten, eten. Ez nagizu akulari etsi.

DEÑA. — *(Lore-ontzi bat eskutik jausi eta apurtzen yako).*

Hara! Ikusten? Horra hamar urtetan gertatu ez yatana.

Ezin dot. Ezin. Dardarea daukat eskuetan, begiak dantzan, lanbrotuta batzutan, bestetan eutsi ezinik, burua ez dakit nun... Ezin dot. Ezin.

ASEL. — Baretu zaitetz, Deña. Gerta beharra da ori.

DEÑA. — Lotsagarri ez ahal da hau, bururik ez daukan neska gangar eta kaskarin baten antzera, gauzak okertzen hastea, galtzen, apurtzen?

Ezin nei, ezin. Sorginkariak yazoko yataz etxe honetan. Ziur egon.

ASEL. — Ez estutu. Ahalegindu zaitetz baretzen. Zeurretik zerbait ipini, arduratu horretan.

DEÑA. — Norberegana ez dago hori.

ASEL. — Ni nago, ni, gaixo asko eta etxean ez gaitetzen danok gaixotu, elkar zaintzeko be. Baretzeko pastilla batzuk erosi eta hartu egizuz.

DEÑA. — Ez, ez, ez, ez. Hori ez.

ASEL. — Zegaitik ez? Ba dakit zure dirutxuak ez gastatearren izango dana. Ez dakit norentzako pilatzen diarduzun, baina...

DEÑA. — Hori nire ezkutukoa da, baina ni ez nua pastillak erostera.

ASEL. — Tori. Erosi egizuz. Horra bost hogerleko.

DEÑA. — Ezetz ba!

ASEL. — Ez zaitetz burugogor.

DEÑA. — Pastillak dirala eta gaur entzuten dan bestez? Ez orixe! Ez, ez!

ASEL. — Entzuten dan txar bateko, mila dira gaur pas-

tillei esker bizi diranak. Baregarriak hartu egizuz. Gaur esaten dozuen legez, kalman-teak. Ez zara damutuko.

DEÑA. — Ez alferrik jardun. Nik pastillarik ez.

ASEL. — Nasaituko zara eta lehengora etorri.

DEÑA. — Ez alferrik ahalegindu. Lehengora etorte hori... Edozer pasata be!

## II IRUDIA

### ASEL, DEÑA eta OIER

DEÑA. — *OIER agertzen dala ikusi orduko*

Zer dakartzu, Oier?

OIER. — Ordu honetan, minuturik be galdu barik, hemen egoteko ez zenduan deitu eta agindu ba?

DEÑA. — Egia.

Deitu egin neutsun, ez?

OIER. — Dudan orain?

DEÑA. — Ez dakit zer esan. Zer egiten dodan be ez dakit.

OIER. — Nik jakin behar dot, ba.

DEÑA. — (*Ase/i*) Barkatu. Esan behar neutsun. Agertu behar neutsun mutil hau.

Nire herritarra da.

ASEL. — Larruskaingoa?

OIER. — Ba dauka ezer Larruskaingoa izateak? Iluntze on, lehen esan ez ba dot be.

ASEL. — Bai. Ez haserretu, baina Larruskaingo zuloan bizar horrekin...

OIER. — (*Nasai*) Beste edozein lako koskabil dun gizon bat. Horra.

Zorioneko bizarra! Ez ahal ziran bizarrakin ibiltzen Santimamiñen gure antxiñakoak? Eta Armiñan, eta Jentiletzetan? Eta gaur, istori aurreko gizon harein hazurak eta bizar beraren indarra neurtu naihean gabiltzala esan lei. Hareik, iño...! Zer da joko hau?

DEÑA. •—Ene! Olgetan ala benetan diarduzu, Oier?

OIER. —Ez olgeta eta ez benetan. «Naturalean».

ASEL. —Ez haserretu eta sutu, mutil.

OIER. —Ez. Haserretu ez. Gauzak berean jarri.

ASEL. —Min ez emoteko gauza bat itaundutearren...  
Non lan egiten dozu?

DEÑA. —Ikaslea da. Estudiantea.

OIER. —Ekonomista.

ASEL. —Larruskaingoa eta ekonomista, e?

DEÑA.—Asinatura bat falta dau amaitzeko.

OIER. —Bat edo lau. Hori nire kontua da. Gaur karreretan urteak ez dauke zer ikusirik. Komentziak eta konzientziak baino.

ASEL. —Hori.

DEÑA. —Bat esan zenduan eta aurtan amaituko zenduala agindu. Erregetako examiñetan amaituko zenduala.

OIER. —Komeni danean.

DEÑA.—Bai, baina ezkontzeko... Oi! ezkontzeko esan dot?

ASEL. —Ezkontzeko?

DEÑA.—Egia. Oraindik ez neutsun emon behar atsekabe hori.

ASEL. —Ezkontzeko esan dozu?

OIER. —Ezkontzeko edo elkartzeko. Itxurak ez dauke zer ikusirik. Larruskaingoak ez ahal dogu ez-

kondu behar? Ez ahal dogu gizatasunaren eskubide eta aukera hori bete behar?

DEÑA.—Ez haserretu, Oier.

ASEL. —Nigaitik... Eleizako atea libre daukabez.

OIER. —Eleizakoak edo... etxeakoak. Gizon libreenak, behintzat.

DEÑA. — Eleizan agindu zenduan, Oier.

OIER. —Nik esan neutsun, eleizan itxurak betetea nai ba zenduan, nik aukeratutako eleizan eta nik aukeratutako abadearekin izango zala. Guzurrara esateko be norbere libertadean.

Gizon honen zerbitzuan zenbat urte daroazuz?

ASEL. —Hamar.

DEÑA. — la hamaika.

ASEL. —Bardin da.

OIER. —Bardin ez da. Nik, ideia zaharrak kentzeko, denbora gehiago behar. Eta ekonomi aldetik, zuk, etxea lagatzean, dote gehiago emon behar,

ASEL. —Honetan ez dago gizon librerik?

OIER. —Horretan lege bat dago.

ASEL. —Baina estatu bat bitarteko.

OIER. —Eta ez Larruskaingoa.

Deña, bederatzietan zure zain egongo naz.

DEÑA. —Bederatzietan afaltzeko ordua da.

OIER. —Gauzak beti era berean eta bardintsu egin behar ahal dira? Bederatzietan elkarregaz egoteko ordua da. Gaur. Biar, komeni danean. Ba dakizu. Bederatzietan.

Agur, jauna.

*(Urteten dau).*

### III IRUDIA

ASEL eta DEÑA

*(Elkarri begira unetxo baten)*

ASEL. —Zirt-zarteko mutila. Zenbat urte daukaz Oier-  
ek?

DEÑA. — Hogetabost.

ASEL. —Eta zuk hogetasei, ez?

DEÑA. •—Piku bat gora behera.

ASEL. — Urtetan, zuk agindu behar zenduke.

DEÑA. — Holakorik ez esan. Gizonaren nausitasunaren  
aurka ez haregaz barbarik egin. Emakumea  
ez ei da gizonaren laguntzaile baino.

ASEL. —Bakoitzaren askatasun edo libertadearen eza-  
guera da hori.

DEÑA. — Emakumeak, beti, gizonaren onera, interese-  
ra jokatu behar ei dau.

ASEL. —Ekonomiko probetxu-laguntzaile.  
Ez nekian mutilik zenduanik. Lagunik zen-  
duanik.

DEÑA. — Lau hilabete inguru.

ASEL. — Laster jo zaitue ezkontzeko garrak.

DEÑA. — Hasi eta hilabete orduko. Gizon praktikoa izan  
nahi dauala diño. Gaur denborarik ez dala al-  
perrik galdu behar.

ASEL. — Eta bizi modua?

DEÑA.—Gurasoen piñadien kontura, karrera amaitu  
aurretik. Eta gero, kalkuloak ondo atara behar.

ASEL. —Jakina, boltzan jokatu.

DEÑA. — Zer da hori?

ASEL. —Gurasoen kontura kapitalista egitea. Ekonomiko problemak.

DEÑA. —Hasarre?

ASEL. —Ez. Piskat harrituta. Minduta.

DEÑA. —Arrazoiz. Konturatzen naiz.

ASEL. —Konfiantza gehiago uste neban zure aldetik.

DEÑA. —Zetarako?

ASEL. —Zerbait asateko. Kontseju bat eskatzeko.

DEÑA. —Egia.

Denbora baino lehen... Nik ez neukan hainbesteko ametsik. Baina... halaxe da.

Olgetan hasi eta benetan amaitu genduan, eta...

ASEL. —Zer diñostazu?

DEÑA. —Esan dodana. Igarri ez?

ASEL. —Pentsaten dodanik ez neuke nahi.

DEÑA. —Beteta ete nengoan itandu dozunean, pentsatu dot igarrita zenduala.

ASEL. —Deña...

DEÑA. —Denak dinoe gauzak beste era batetara egin behar dirala. Ez dirala lehengo antzera egin behar, Lehengoa ilunkeria zala, misterioa. Gaur bere-berez bizia bizi behar dala. Gorputzik ez dala lotu behar. Gogorik ez dala estutu behar. Gauzak, era guztietan, aldatu behar dirala.

ASEL. —Eta ondo dagoana okertu eta oker dagoana okerrago bihurtu.

DEÑA. —Aldatu. Hori.

ASEL. —Arrazoi dauke Larruskainen, Deña. Bederatzi-tan... ez da afaldu behar. Gertu zaitetz.

DEÑA. —Bialdu nahi?

ASEL. —Ez holakorik. Etxea hemen daukazu, zure aurretikoak euki izan eben legez, zuri zeuri deritxazun aríe. Ni lehengoa naiz. Ni ez naiz aldatuko, honetan behintzat, eta gero be, jazoak jazo...

DEÑA. —Gero be bai?

ASEL. —Gizon arteko ezaupide eta maitasunak ez ditu errekaizeak jo eta bota behar. Gizona ez da bihotz bako arbola zaharra.

DEÑA. —Hori esaten dot nik. (*Badoa. DEÑA'k urten orduko, UNAX agertzen da.*)

#### IV Irudia

UNAX. —Garratz dago hauzia.

ASEL. —Zer dala ta?

UNAX. —Nik esan nebana egin ba litz, behar ba da ez zan holakorik.

ASEL. —Gero be ikusi behar.

UNAX. —Polizia minduta dago lapurreta edo atrakoa ezkutatu edo ixildutzeagaz.

ASEL. —Egon lei.

UNAX. —Ori poliziarí destain bat egitea dala, diño. Eta lapurren eran pentsatzea. Lapurrei laguntzea. Gizarteari errespeturik eta lotsarik ez gorde-tea eta ez erakustea.

ASEL. —Ez dago destaiñik. Premiñarik ez ikustea bakarrik.

UNAX.— Premiña edo ez, pentsatu behar genduan jakingo zala.

- ASEL. —Lapurrak edo atrakatzailleak ez eben esango, segurutik, eta barrukoak mihi labanegi erabili ez ba lebe, iñok ez eban jakingo.
- LINUX.— Horrela dala, zuk gure errua emoten dozu.
- ASEL. —Zabaltzearena bai.
- UNAX. —Hobe zenduke atrakoaren errua be guri ezartea.
- ASEL. —Zabaldu ez ba litz, behar bada, norbait jausiko zan.
- UNAX. — Ametsak.
- ASEL. —Ametsak ez, ikusiak.  
Ezagutzen dot nik, hogeit urtetan ezkutuan gorde, eta gero lapurra arrapatu ebana. Eta bere emaztea zan.
- UNAX. — Fernando Amezketarraren sasoia amaitu zan.
- ASEL. — Bai?
- UNAX. — Dana dala, kontua emon ba gendu...
- ASEL. —Orduan zu gartzelara joango zinan eta Inge be bai.
- UNAX. — Zure pentsaera. Zegaitik?
- ASEL. — Gaur poliziak jokabide bi daukazalako. Edo benetako lapurren susmoa egin, eta itxura gixi dago horrenik, edo politika buruzko nahaspilen bat pentsatu.
- UNAX. — Eta orain zu joango zara.
- ASEL. —Leikena da. Hala ba da, dakizun legez, okerean. Eta burubide ezbardina dagoalako.  
Zuek, gazteontzat, guk zaharrok zereginik ez dogu herrian. Agintzen dabenak bestera pentsaten dabe. Harentzat buru eta biotza guk zaharrok doguz, indarra eta itsutasuna zuek eukiarren.

Gainera, barruari egia esaten laga-ta, zuek gazteok poztu egingo zinateke gu zaharrok gartzelan ikusteagaz.

UNAX. — Zegaitik horrela pentsatu, aita?

ASEL. —Zuen giroa ezagutzen dot. Ez egidazu ukatu.

UNAX. —Inge dator.

ASEL. — Bere aurrean ez aitatu be atrakoaren konturik.

UNAX. — Beretik urtenda jarten da. Gaixorik egon zala ba dakizu.

ASEL. —Ez bildurtu. Txakur hauzilaria ez da aginkaria. Nik esaera zahar bat esaten dodanean, zerbaitegaitik esaten dot.

UNAX. — Nik be zerbait ikasi dot esakeretan. Eta hordago joko neuke antzeko bategaz. «Txakur etenari eta emazte minduari ez begiratu.» Emaztea dana, emazteki hartu eta beroago oraindik.

## V Irudia

### ASEL, UNAX eta INGE

INGE. — (*Agertuaz*) Herri ozkilagorik, gitxi. Egun guztian, jo-ta su ibiliarren, liburu bat sartu eta saldu ezin.

UNAX.— Liburuak laga egizuz. Ezer jakin dozu?

INGE. — Libururik ez dot lagako eta ezer jakin ahal ba ledi, jakingo dot. Baina nire ekinik ez dot atzeratuko.

Atraku batek kikilduten zaitue? Zuetan gertatu zana beste etxearen batetan gertatu ba litz, zer esango zenduen?

Zer da atraku bat erri baten zeregiñean? Izena kendu egiozu, eta ezer ez. Mila atraku egi-ten dira egunero bankuetan, interesen lapurretakin, eta inor ez da harritzen. Mila atraku egunero lantegietan, langileen izerdi ordeztan, eta bear leukenak lepoa jasoten dabe. Osasun ordeztan bizia kenduko deusue kliniketan, eta iñor ez da ausartzen azterrenak hartzen.

ASEL. —Ori, danori, ba dakigu.

INGE. —Eta dan dana mutu irentsi. Ondo bizi zarielako.

ASEL. —Ahal dan eran. Txistu garratz asko irentsita askotan.

UNAX. —Etxeetan ondo zainduta, bakearen aitzakiz.

ASEL. —Naikoa da, Inge. Zure zabalkundeetarako iokia, edo nahi ba dozu, zure propagandetarako tokia, beste alderdi baten euki ziñei.

INGE. —Kalean libertaderik ez egotea ez da mirari, etxeetan kateak erabilten diranean.

UNAX. —Mesedez...

INGE. —Isilduko naz. Ez dakit zegaitik. Errespetuz... ez. Errespetua kapitalismoaren arma bat da, isilik euki eraziteko.

ASEL. —Beti betiko esaera hutsak!

UNAX. —Aita konturatzen da zuk esan zeinkenaz.

INGE. —Ba dakit. Eta isilduko naz. Baiña jakizu, ezkontzen zarenean, erakutsiko deutzudula praktikak nok euki behar ditun etxean.

*(Isilunea.)*

Zer da mindu ezin zeinkezan jarduna? Jakin gura neuke.

ASEL. —Edozek be, zentzunez, ez nau minduten.

INGE. —Itxurak besteak dira.

Zenbat ziran, azkenean be, atrakuko diruak?

UNAX. — Ba dakizu. Hirureun mila peseta.

INGE. —Mingarri da, baina egunean mila peseta be ez urteko.

ASEL. — (*Haserre*) Nire urte luzeetako irabaziak dira. Bizitza guztiko irabaziak!

INGE. —Lapurrak ba dira, hilebeteko farrak egiteko haiña. Herri ekintzakoak ba dira, agintariak ez dabe bildur handirik hartuko gaur hirureun mila pesetak egin leiken kaltearen bildurrez.

ASEL. — (*Sututa*) Naikoa da. Zeren bila zabiltz? Zer da nahi dozuna? Esan. Esan behin. Zer da nahi dozuna? Gu danok zure gogai eta idee-kin nahastatzea?

INGE. •—Gazteak nahi neukez guregandu eta ez odolaren garra galdu dabenak.

ASEL. —Ziurtasuna daukat, Inge, urteren baten, gaur zu eta nire artean dagoan diferentzia baino handiagoa hartuko dozula zure eta zure ondorengoan artean. Eta askotan negar egingo dozula, ulertu nahi ezaituelakoan, eta horretarako ahaleginik egiten ez dalakoan. Nahiz eta bihotzean sentimendu bardina eroan. Ba noa. Polizirako deia daukat.

INGE. — Zetan?

ASEL. —Ez dakit. Gurasoak sarri eukiten dogu semeen erantzun beharra, nahiz eta semeak, gehiengotan, harrokeritzat euki gurasoei muturretan emon beharra.

UNAX. — Nigaitik edo gugaitik deitu deutsuela esan nahi dozu?

ASEL. —Zorioneko atraku horretaz izango da, segurutik.

- UNAX. — Eurak etorri bear ziran.
- ASEL. — Arrisku gitxiago dago bertara joanda.  
Ba dakizu: «Bildur danari malda guztiak otso idun.»
- UNAX. — Lagunduko deutsut.
- ASEL. — Bakarrik ibilteko gauza naiz oraindik.  
(*Dua.*)

## VI Irudia

### UNAX eta INGE

- UNAX. — Haserre daukagu aita.
- INGE. — Bere urteerak, ataraldiak, berezkoak dira.  
«Normalak».
- LINAX. — Beste era batera jokatu behar genduke bere aurrean.
- INGE. — Zer nahi dozu esan?
- UNAX. — Ingalandarren erara.
- INGE. — Ez deutsut hartzen.
- LINAX. — Diplomazi gehiagoz.
- INGE. — Horrekin esan nahi dozu atzeratu nahi dozula.
- UNAX. — Piska bat bigundu.
- INGE. — Eta Marx'en Kapitalaren liburua euskeratu dogun ordez, Edurne-Zuriñe eta holako liburuekatz herria ipuiñez beteten ahalegindu behar ginakeela.
- UNAX. — Bitarteak ba dira.
- INGE. — Ez, Unax. Bitartea ba dakit nik zer dan. Ez huretako eta ez saldatako gelditzea. Eta ori ez.

UNAX. — Ba dakizu, une honetan, aita gartzelara eroa-  
teko arriskuan dagoala.

INGE. —Zaharrak iratzarteko ondo etorriko litzake ho  
lako bat. Ez dot esaten nahi deutsadanik. On-  
do etorriko litzakeala baino.

UNAX. — Bihotzik ez daukazu, Inge.

INGE. — Burua bai.

UNAX. — Ideia bati itsu itsuan lotuta zagoz.

INGE. — Itsu itsuan ez dakit. Ametsez eta konzientziz  
bai.

UNAX. — Garbi hitz egin daigun.

INGE. — Beti gabiz orretan.

UNAX. — Etxeko atrakoa nok egin zeikeala uste dozu?

INGE. — Ez dakit. Garrantzi gehiegi ez emon atraku  
horreri. Milaka jazoten dira holakoak mundu-  
an. Hemen egitea gertatu zala?

UNAX. — Zure hoztasunak harrituta nauka. Gauza be-  
rezko edo ohi bat legez botaten dozu hori.  
Eta nik ezin nei holakorik ontzat hartu.

iNGE. — Ukitu egin deutsalako.

UNAX. — Gizartean gizarteko lege bat egon behar daua-  
lako. Batek naiz besteak agindu.

INGE. — Ori teori klasikoa da.

UNAX. — Gizartea gizarte zainduko ba da, egon behar  
dauana.  
Baina teoriak laga eta... Ez zara konturatzen,  
etorri zan lapurretako batek...

INGE. — 3a-da-ezpadan, lapur orde, atrakatzaillea hitza  
erabili egizu.

UNAX. — Nire pentsamentuetara zatoz. Ez zara kontu-  
ratzen bietako batek zelan esan eban, ba  
ekiala berreun mila peseta atara genduzala?

- INGE. —Guzurra gertatu zan.
- UNAX. — Guzurra zan, bai. Baina egun batzuk lehena-  
go, egun horretan gure aitarí diru hori eska-  
tu behar geuntsala esaten ibili giñan. Hobe-  
to esanda, zuk «eskatu» ordez, «atara» bear  
geuntsala esaten zenduan.
- INGE. — Eta?
- UNAX. — Aste bete geroago, gure ekintzako liburuak  
irarkolatik, inprentatik, atara ahal izateko  
bear genduzan berreun mila pesetak, norbai-  
tek ordaindu zituan.
- INGE. — Bai. Eta?
- UNAX. —Lapurra...
- INGE. — Atrakatzailea,
- UNAX. — Gure artean dagoala.
- INGE. —Zure logikan, guk komedi ikaragarri bat egin  
dogu. Eta testigurik ez genduala, koldarkeriz  
une batzuk igaro doguz hormetara begira. Eta  
hortik aurrerakoak.  
Eta zu gertu zengozan poiiziari deitzeko, itxu-  
raz, gu gartzelara eroateko.
- UNAX. — Holakorik ez neban pentsatu.
- INGE. —Zure izpiritu txiki eta estuaren berezko ondo-  
ren jatorra izan zan hori. Bizitzan asko ikas-  
ten da, Unax. Garbi esan behar deutsut. Zer-  
egin gitxi daukagu halkarregaz.
- UNAX. — Kaleko bizitzak, problemak, ez dauke zer iku-  
sirik bion arteko maitasunagaz.
- INGE. —Bata eta bestea elkarren kide dira.  
Ba dakizu, oraindik ezer gertatu ez ba *dozu*  
be, entzun, ez ba do-zu be...
- UNAX. — Zer gertatuko dogu jokabide honetan?

INGE. —Ba dakizu, diñot, etorteko dan *nire* fruitua...

UNAX. —Gure.

INGE. —Itxurarik ez dago. Hemen bakoitza beretik gabiltzala dirudi. Ez guri, zuri edo niri dagokion edo dagokidanez baino. Eta egia esan da, nahi be ez dot bestera.

UNAX. —Inge!

INGE. —Ez ahalegindu. Koldarti baten semea nire erraietan eroan baino, nahiago dot lehenengotatik lau pastilla hartu eta etorriko zana hur zikinetan ezereztu.

UNAX. —Holakorik ez, Inge!

INGE. —Norbere izatea baino herri osoaren izatea gehiago dago nire arduretan. Ni baino herria maiteago dot.

UNAX. ~Ba dakit. Eta nik?

INGE. —Teoriz. Ametsez.

UNAX. •—Sasoiz ikusi behar nor nor dan.

INGE. —Hori. Eta sasoia oraintxe da.

Eta nik, gizartearen kaltegarri eta bigungarri izango dan nire seme bat berari emon baino lehen; gero bere aurka ibiltzekotan, orain beste askoren aurka gabiltzan legez, nahiago dot oraindik neurriak hartu.

UNAX. —Emakume baten odolik ez daukazu.

INGE. —Zuk gizarte husteldu baten hurak daukazuz.

## VII Irudia

UNAX, INGE eta OIER

OIER. — (*Agertuaz*) Inge! Emen zengozan (*Unax'i*)  
Kaixo!

(*Inger'i*) Zorionak emon behar deutsudaz. Ekatzu esku bedeinkatu eta maitagarri hori. Ba dakit liburu bat saltzea lortu dozula. Euskalerrri mistiku honetan, Marx'en Das Kapitalaren ale bat saltzea, garaipen handia da. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

ÍNGE. — Betiko Oier!

OIER. —Eta ba dakit nok erosi dauen.

INGE. — Nork?

OIER. —Nire herriko abadeak. Ja, ja, ja!!

Ez dakit ideei begiratuko deutzan. Emoten yakona, dan dana iruntsiten dau harek, gure astotxoaren antzera. Baina ba dauka zeregin ugari «h» ondo sartu dan edo ez arakatzen. Ba dakit penatan dabilala «imprimi potest» edo dalako ipokresi hori barik agertu dalako. Iño! Hori pekatu handia da. Horrek «absolutioa», barkamena ba dauka horraitik. Baina, kontxo, kontxo, «H» horrek purgatoriotik pasatu beharko dau.

INGE. —Ekonomiko problemak erabagiten zatoz etxe honetara?

OIER. —Garratzago ba daukat. (*Belarrira*) Neskameagaz nahastu nintzan eta libratu ezin. Hori bai dala problema.

!INGE. — Deña'gaz?

OIER. —Ixo. Erdi neskarra da. Baina ukiturik gabekoa. Baba lorea.

INGE. — Horrek ezagutzen dau ondo.

UNAX. — Zein?

INGE. — Deña.

UNAX. —Ba! Ps...!

INGE. —Zu baino zaharrago da.

- OIER. —Horretan? Maitasunari muga ipinten? Buru garbiketa egiten hasi zara?
- INGE. —Nire burukomiñik ez daukazu, Oier.
- OIER. —Gibela sano ba dago... Gure ezaugarria, gure konsigne ba dakizu: Gibeletik, gibeletik!
- INGE. —Hori zuek. Eta guk?
- OIER. — (*Burlaz*) Eutsi! Eutsi!
- INGE. —Izorratuta gero, eutsi. Hori. Danok zarie bar-diñak. Norberekeriaren kapitalismoa dozue danok.
- OIER. —Ori ikasteko nengoan.
- INGE. —Diruarena bezin kaltegarri eta azpiratzaile. Ez deusue ardurarikf sex'ak besterik. Lizunez, bizioz arrimaten zarie. Danok. Danok. Eta nahi eta ezean maitasunean sartu. Hori. Eta maitasuna indar barria danik ez dakizue, edo ez dozue jakin nahi.
- OIER. —Hori. Nik dakidan baten emazte egingo ba ziña, Otxandioko katea fabrikak gitxiegi litzakez
- INGE. —Zetarako?
- OIER. — (*Jostari*) Askoren zereko zeraren zerak katepean estutzeko.
- INGE. —Gaur kateak baino indar gehiago dabe drogak. Danentzako. Gizonentzako eta herrientzako. Zoritxarrez. Begira bestela zure herriari eta zure herritarrei.

### VIII Irudia

UNAX, iNGE, OIER eta IRMA

- IRMA. — (*Kezkati dator*) Zuen bila nabil.
- UNAX.— Zer ba?

- IRMA. —Liburuak batu egin ditue.
- OIER. —Nire errian, «iñusente potente biar san Bi-xente» esaten dabe.
- IRMA. — Benetan.
- INGE. — Nork batu?
- LINAX. — Poliziak?
- OIER. —Adarra jotera ba dakizu nora jo. Nor da hemen akerra?
- IRMA. —Benetan. Benetan diñotsuet.
- UNAX. —Nork batu? Poliziak?
- INGE. —Benetan diarduzu? Esan. Errekaizerik ez dogu.
- UNAX. —Zabaltzen hasi baino lehen batu? Zer dala ta? Zelan izan leike hori?
- OIER. — Zer dala ta?  
*(Irriz)* Zuek be gogorak zarie-ta! Zelan atara leike hogeigarren gizaldian «imprimi potest» bako liburua eta «h»-z beteta? Agiri agirian bekatu bi hor dozuez behintzat. Moralaren aldetik eta kulturaren aldetik. Hori jakina zan. Eta ekonomiaren kontrako bekatua hirugarrena. Inprentako jaubearen konfiantzaz abusatu, ordaindu ezingo zenduela jakinik.
- INGE. —Edizioa ordainduta dago.
- OIER. — Nork?
- INGE. —Ez dakigu. Herri ekintzako gorabeherak ezin leiz jakin. Eta komeni be ez jakiterik.
- OIER. —Gure antzeko bizardunen bat joango zan inprentara, pistolea mahi gainean erakutsi eta kaka larritan inprentako jaubea ipini ondoren...
- IRMA. — Ez.
- UNAX. — Etzaitz sator, Oier. Ez da olgetako gauza.

- . —Nire barrurik ez daukazu.
- OIER. —Ez zaiteze estutu. Munduan egin diran gauzarik handienak, oigetan egin izan dira. Gerratan, armaz, herriak izorratzen baino ez da lortu. Edozein alderditatik begiratuta.
- INGE. —Oigetan be izorratzen dira batzuk. Emakumeak beinik bein.
- OIER. —Hori, nik, Oier'ek esan izan ba neu, berdearen berdez beiarri atzeko koipeak be berdetuta lagako zeustazuezan. Baina Inge'k esan ezkerro, dra! Egia biribila. Eta halaxe da, jakiña.
- IRMA. —Ez dozue sinistuten?
- OIER. —Sinistu eta iruntsi.
- IRMA. —Orrela dala, zetan gagoz?
- INGE. —Dakizuna garbi esan egizu.
- OIER. —Ekonomiko problema batekin ez zaiteze bildurtu. Porrot, kiebra egitea izaten da, itxura baten, ondorenik bildurgarriena. Eta kiebra egin dabenak aberatsen ikusten dira.
- IRMA. —Ez dala hori. Politikazkoa dala.
- INGE. —Laga eiguzu, Oier, zerbait jakiten. Mesedez.
- OIER. —Nire eritziak eta nire jakituria erakusteko libertatea kendu nahi deustazue?
- INGE. —Orain, une honetan, beste hori jakin behar dogu, zelan jokatu erabagiteko.
- OIER. —Politikaz ba dator edizio batze hori, hobe dantzat. Hobe.
- UNAX. —Adarretik ez joan, Oier.
- OIER. —Euskalerrri bedeinkatu honetan liburu hori ez eban inok erosiko, nire herriko abadearen antzeko beste lantzoi eta akulariren batek ezik. Eta jakiña, kiebra egingo zenduen, baina zuen guraririk, zuen ojetiborik bete barik. Orain,

poliziak batu dauela jakiten danean, jente guztia bere bila asiko da. Inok ez dau irakurriko, jakina, baina jobi hori asetuko da. Eta iiburua zabaltea lortuko dozue eta dirutu. Orra pantxu bi kalada batean. Eta irakurri, behar ba da, gure semeen semeen semeak egingo dabe, ordurako euskal arrazaren buru garbiketa egina izango dalako. Ez ahal da hala?

Orain ikasi egizue gartzelako bidea nondik hartu.

Bakoitzak bere ofizioa. Non da nire Deña?

IRMA. —Zetarako nahi dozu Deña?

OIER. —Bakoitzak bere opilari su emon beharra dagoanik ez dakizue?

(Deiez) Deña!

(Unax'i) Ba dakizu non egon leiken?

UNAX. —Makal dabil aspaldi.

OIER. —Larruskaingo gorosti honen makilakadak hartuta egongo da-ta!

INGE. —Zure umorea nahi genduke.

OIER. —Ekonomista legez horra kontsejl! bat. Gauzak patxadaz hartu ezkeru, jabetza gitxiago behar izaten da barruko erropak garbitzeko.

## IX Irudia

UNAX, INGE, OIER, IRMA eta ASEL

ASEL. — (Agertuaz) Zetan zagoze danok hemen?

UNAX. —Gertaera bat.

ASEL. —Niri, zahar honeri omenaldi bat egiteko ez da izango nonbait.

- OIER. —Zaharrei adarrak kimatu eta usteltzen laga.  
Hori onena.
- ASEL. —Gartzelan usteltzen laga, ez?
- UNAX. —Zer esan deutsue, aita?
- ASEL. —Azeritzako ez dozu asko balio.
- OIER. —Jakin behar uriburukoak, kapitalekoak, azeria  
zer dan.
- ASEL. —Poliziak ba daki.
- UNAX. —Zegaitik diñozu ori?
- ASEL. —«Axeri zaharrari ulea yoan, menduak ez» esan  
deuste.
- UNAX. —Zegaitik?
- OIER. —Zu ez zara Larruskaingo.
- UNAX, —Ez.
- OIER. —Ez ukatu. «Azeriak bere lako umeak», esaten  
dabe Larruskain'en, baina ez dago erreglarik  
ezeptzio bakorik. Eta zu bat. Aitaren seme ez  
dirudizu.
- UNAX. —Zer esan deutsue, aita?
- ASEL. —Ezer ez. Esan deutsut. Mendurik ez dodala,  
mendurik ez dodala laga. Esatea legez, lehen-  
go lehengotan jarraitzen dodala.
- UNAX. —Eta zer?
- ASEL. —Ba nirea dala jazo danaren errua. Atrakoa ez-  
kutatu nahi izan dodala, ezkutuan diarduen  
ekintzaileena zana ba nekialako. Eta honez  
gainera, ezkutuko liburuen asmatzailea edo  
ordaintzailea ni naizela.
- OIER. —Je! Kapitalista bat Marx'en Kapital zabaltzen.  
Hori ekonomistarik biurrienari be ez yakon  
irudituko.
- UNAX. —Zetatik esan lei hori?

- ASEL. —Agiriak daukez. Itxura baten ukatu eziñak.
- UNAX. — Zeuk be ukatu eziñak?
- ASEL. —Taloiareen izenpea, firma nirea danik, ezin lei ukatu. Segurutik norbaitek ba ekian nik taloi batzuk, erraztasunagaitik, edo zuri eskubide piskat emotearren, izenpetuta eukiten do-dazala.
- INGE. — Baina ukatuko zenduan taloi hori zure gogozkoa dala.
- ASEL. —Hori sinistu eraziteko, lehenengo nire odolaren aurka jokatu beharko neuke.
- INGE. — Zer dala ta?
- ASEL. —Semearen aurka jokatu beharko neukelako.
- INGE. — Agiri horregaz ezin lei luzera jo. Ba dakie taloi hori ostua izan zala.
- ASEL. —Eta ba dakie, hain zuzen be, taloi horregaz ataratako diruak ziralara zuen Kapital dalako liburuaren agerraldia ordaintzeko emonak.
- INGE. — Nork?
- ASEL. —Ezkutuan dago. Horren atzetik dabiltz.
- INGE. — Susmorik be ez?
- ASEL. — Hemengo edonor izan leikela diño. Eta horretarako nahiago dot ni agertu, ni egin arduradun.
- UNAX. — Eta nok esan lei, hain zuzen be, diru hori zala gure taloiagaz atara zana?
- ASEL. — Bankuko zuzendariak, bere burua garbitzeko, poliziari emon eutsan lehenengotatik diru horren zenbakia eta ezaugarriak.
- INGE. — Beraz Bankuko zuzendaria izan da salataria.
- ASEL. —Bankuko zuzendariak, diruari buruz jokatu eban. Beste ezeri begiratu barik. Gerokoari

begiratu barik. Bankukoen politika diruarena da. Besteak hor konpon.

OIER. —Baserritarren kartillik bihotzik eta izerdirik ez ba leuke legez.

INGE. —Eta gero haserretu egiten zarie ni kapitalismo itsu itsu itsuaren aurka jarduteaz.

OIER. —Eskerrak Larruskaingo ekonomistak dirua íeorian bakarrik ikusten dogun.

ASEL. —Unax, Deña'ri esan nire maletatxoa gertuteko.

UNAX. —Baina, aita, ni joango naz. Nahi-ta-ezkoa ba da, ni egingo naz errudun.

ASEL. —Sekula be ez!

Nik desbardintasun asko eukiko dodaz jokabide batzuekin. Nik jokera asko bete betean ezetsiko dodaz. Herri minez egin edo ez. Nire uste eta pentsamentuetan libre jokatzeko duin nazala uste dot. Baina nik niregan zerbait hartu behar dodanean, beste inori ez deutsat errurik ezarriko. Gitxiago gizonaren libertadea bitarteko dala.

## X Irudia

UNAX, INGE, OIER, IRMA, ASEL eta DEÑA

*(DEÑA agertzen da maleta handi bat eskuan dakarrela)*

*(Kiriotsu dator)*

OIER. — Ba zatoz?

ASEL. —Maleta hori ez, Deña. Nire txikia.

DEÑA.—Zure txikian ezin neiz nire jantziak eroan.

ASEL. — Eroan? Nora?

DEÑA. — Nire herrira noa. Datorrena datorrela, nik ez dot nahi pastillarik hartu.

OIER. — Guk deberatzieta elkar ikusteko ordua ipini dogu eta ez etxera joateko.

DEÑA. — Ezin nei hemen egon. Gauza batzuk aldatu beharra dagoena ba dakit. Ba dakit. Baina beste asko ez. Beste asko ez.

Herri handitako bekatua sabelean daroadala nire baserrira noa. Laga egidazue joaten. Hemen sorginduko nintzake. Eta nik kapitaleko lotsarik ez daukat eta ez deusatz emon nahi datorrenari. Nire baserrira noa. Ez ezezik esan. Pastillarik ez dot hartuko baretzeko aitzakiz.

ASEL. — Zure bururik ez estutu, Deña. Baretu zaitetz. Zegaitik zoaz? Haserre? Ni gartzelan nagoan artean be ez dozu nahi etxerik zaindu?

DEÑA. — Zer entzun dot? Gartzelara zoazela?

OIER. — Jesukristo zanak be euki ei zitun lapur onak inguruan. Eta gurutzean hil ei ziran.

ASEL. — Zuk ba dakizu konfiantza betea euki dodala zugaz.

DEÑA. — Betea, ez, gehiegi.

ASEL. — Eta konfiantza hori euki dodalako, elkarren errespetuz bizi izan gareala.

DEÑA. — Bestelako nasaitasunaz bizi izan naiz orain-tsu arte!

ASEL. — Zegaitik zoaz, horretara? Laga egizu zure maleta hori eta ekatzu nirea.

DEÑA. — Norako? Kartzelarako?

ASEL. — Benetan, bai, kartzelarako.

- ASEL. — Ba dakizu. Atrakoa ezkutatu nebalako. Ezkutuko liburuak ordaindu nebazalako.
- DEÑA. — Poliziak zelan daki hori? Nondik atara dau hori?
- ASEL. —Euren zeregina da.
- DEÑA. — Ni joango naz esaten oker dagozala. Guzurra dala.
- ASEL. — Ez deusue sinistuko.
- DEÑA.—Sinistu eragingo deuset.
- ASEL. — Bihozkada bat dala pentsatuko dabe.
- DEÑA.—Baina nik agiriak emongo deusedaz. Ezaugarriak.
- OIER. —Buru galduta ikusten zaitut.
- IRMA. —Lotako pastillak ekarri egizuez lehenbailehen.
- DEÑA.—Pastillarik ez. Oraindik gogoan daukat.
- INGE. —Herri ekintzako norbait ba da, mihia moztuko deusue gordin gordin, izenik agertzen ba dozu.
- DEÑA.—Egiarik ez dot ezkutatuko. Ez. Ni izan nintzan, ni, atrako hori asmatu nebana. Ni! Ni!
- LINAX. — Deña, ondo zagoz?
- OIER. — Non daukazu burua eta non zentzuna, non?
- DEÑA.—Bai. Ni! Entzuten dozuen legez. Ni!
- ASEL. —Danok dakigu hori ez dala egia.
- DEÑA.—Sinistuta nengoan Unax estu ebilala eta diru hori premiña premiñazkoa ebalu.  
Nik ez dakit zetarako. Ezkontzeko pentsaten neban. Entzunda negoalako... Inge amatasu-  
nean egola.
- INGE. — Nire amatasunik ez sartu arazo honetan. Ez aitatu ezetarako.
- DEÑA.—Nire burutapena izan zan, ezkutukoa zalako.

- ASEL. — Ezin leikenik ez esan. Ni gartzelara ez eroa-tearren, ba dakit edozer egingo zendukeala.
- DEÑA.—Edozer ez. Egia esan.  
 Eta etxeko batek ez egiteko, ni izan nintzan Oier honetarako zuritu nebana.
- OIER. —Zure semearen aita lapurtzat agertu ziñei, horrela, danen aurrean?
- DEÑA. — Lapurtzat ez. Ba dakit olgetako lapur bat izan ziñana. Irma lagun zenduala.
- UNAX. — Zegaitik egin zenduan hori, Deña? Ezin dot sinistu.
- ASEL. — Baketan laga egiozu.
- DEÑA. — Ez nagizue zoratu. Laga niri herrira joaten. Zuretzako emondako berreun mila pesetatatik, gorakoak, hor dagoz, liburu baten barruan. Ikuturik egin barik.
- UNAX. — Nik diñodana da zegaitik jokatu dozun horretara, orain danok arriskuan ipiniz.
- ASEL. — *Unax'i*) Zegaitik ez zenduan estatusun hori niri agertu, kanpotik ibili barik?
- INGE. —Koldartiak beti koldarti izango diralako.
- DEÑA. — Sinistu eragiten eusten, bizikera, izakera, jo-kaera, dana, zeharo aldatu behar dirala gaurko munduan. Gauza barriak egin behar dirala, harrigarrienak izan da be, barriak behar diralako. Horixegaitik.
- OIER. —Deña, hartu pastilla au. Mesedez ez, aginduz.
- DEÑA. — Ez emon niri ezelako pastillarik. Ez! Ez!
- ASEL. —Ez gehiago hitzik egin, Deña. Hori nire agin-dua da.
- DEÑA. — Nik, nigan dagoana zaindu nahi dot antxiña-ko erara.

OiER. —Baketan Deña. Hartu pastilla hau. Birritan ez neuke esan nahi. Hartu.

DEÑA. —Drogatu gura nazue? Ez dot hartuko pastillarik. Ez.

ASEL. —Ez gaitezen zoratu. Bakoitzaren libertadea zaíndu daigun.

Berandu da. Gelditu zaite etxean. Konfiantza osoz. Eta ekarri maletatxoa.

Ez dot nahi hitzik egin. Espetxean pentsatuko dot, azeri zaharrari ulea joan arren, menduak joan ote yakozan ala ez.

Eta, hori, nigaz batera, herriak esango dau.

O I A L A